

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-07-22
ASTELEHENA
419. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



LEIRE KORTABARRIA

"Denok gaudela krisian uste dugu, baina mundua ez dago krisian"

Jon Ugarte | Mondragon Internacionaleko zuzendaria | 8

POSTERRA, BARRUAN
Mondra-Real partidukoa



Blanca Legorbururen balkoia izan da denetan ederrena | 9



Gatzaren erabilgarritasunaz jabetu ziren Gatzaren Egunean | 12

Mairua makurrarazi dute

Antzuolako batailoiak mairua makurrarazi zuen zapatuan. Euria hasiko zen beldurrez egin zuten alarde jendetsuan antzuolarrak errespetatuko dituela adierazi zuen mairuak; eguraldiak ere beste horrenbeste egin zuen. | 17



Antzuolako batailoiko kideak, mairuaren aurrean, eta kapitainaren aginduetara, su-armen indarra erakusten.

IMANOL SORIANO

Aitor Rodriguесekin elkartasuna, Spat onena izan zen txapelketan

Joan den astean Bergaran lan istripua izan zuen Mondrako jokalaria gogoan izan zuten Ibarren | 18




Rodriguесi animoak emateko pankartarekin atera zuten erretratu. | I.ZANGITU

Coprecik etxekoen eta herritarren bisitaz ospatu zuen ate irekien jardunaldia | 4

Orain dela 50 urteko ilusioa, krisia mendean hartzeko gakoa

- ▶ 1963ko uztailearen 1ean hasi zen Fagor Ederlan
- ▶ Krisia menderatzen dabil, internazionalizazioari, berrikuntzari eta langileen konpromisoari esker



60ko hamarkadako fundizioko irudi bat; eskuman, 90eko hamarkadako argazki bat eta

LEIRE KORTABARRIA | ESKORIATZA

Krisia ondo dabil zeharkatzen Fagor Ederlan kooperatiba, eta hori da bere 50. urteurrena ospatzeko modu onena. Hori are nabarmenagoa da automobilgintza sektorearen egoera kontuan hartzen badugu. Hala eta guztiz ere, Fagor Ederlan gaur egun liderra da powertrainetan eta txasietan, eta munduko automobil-ekoizle nagusien partner ezinbestekoa da Eskoriatzan sortutako kooperatiba. Iaz, 681 milioi euroko salmentak egin zituen, eta aurten 662 milioirekin bukatzea aurreikusten dute. Urterik urte langile eta bazkide gehiago dituzte –iaz 3.573 kide ziren, eta aurten 3.652 izango dira; horietatik 1.500 inguru bazkideak dira eta inbertitzen jarraitzen dute: iaz 42 milioi euro, eta aurten, beste hainbeste.

Globalizazioaren erronkari ere ondo eusten dabil Fagor Ederlan: Eslovakian, Brasilen eta Txinan lantegiak ditu eta AEBetan eta Korean aliantza produktiboak. Etxean eta inguruan ere hazi da Fagor Ederlan: Arrasaten eta Bergaran, Usurbilen eta Tafallan ditu adarrak.

Hori dena ikusita, are pozia-
go ospatu zuten Fagor Ederlane-
ko langile eta bazkideek 50. urte-
urrena.

1963ko ekainaren 28an sortu eta uztailearen 1ean jarri zuten martxan proiektu kooperatibo berria mutil gazte batzuek. Fundizio bat zen. Orduan zeukaten ilusioa, printzipio kooperatiboetan sinismena eta kooperatibarekiko grina oraindik igartzen zaie orduko sortzaileei. Sotero Olabe da horietako bat: "Ez ginen konturatzen garai gogorak ziren edo ez; gazteak ginen. Poz handia daukat eta esker ona diot Ederlani; nik ekarriko nion pixka bat, baina berak niri ekarri dit", esaten du. Ramon Barrutia sortzailearen alargunak, Miren Zubizarretak, hau dio: "Bakarrik pentsaera bat zeukan hark: kooperatiba, lana, laguntasuna..." Leandro Hernandezek hauxe dio: "Enpresan egin nituen bizi osorako lagunak. Inoiz ez genuen pentsatu izango hainbeste haziko zela kooperatiba. Bailaran zeuden beste enpresa batzuen adinekoak izango ginela pentsatzen genuen, 200 langile inguru, beharbada. Ederlanen jardun duten guztien

lana da hau, ez bakarrik gutxi batzuenak".

Orduko ilusio horrendako izena topatu dute Ederlaneko oraingo langile eta bazkideek:

ederlantzea. Hori da Fagor Ederlaneko familiak egin duen bideo-kliparen eta bertako abestiaren izena. Fagor Ederlaneko Kontseilu Errektoreko kide Borja

Garitaonandiaren esanetan, "ederlantzea da orain 50 urte egiten hasi ziren gauza bera egiten jarraitzea: balio kooperatiboak indartuz, inguruan eragin sozioekonomikoa daukan enpresa egitea".

Urteurrena Interneten ospatzen

Hainbat ekintzarekin dabil Fagor Ederlan bere urteurrena ospatzen, eta horietako bat 40 langilerekin grabatutako *Ederlantzen* bideo-klipa da; Interneten bolo-bolo dabil argitaratu zenetik. Artemanek egin du Fagor Ederlanendako. Eskoriatza, Arrasate eta Bergarako instalazioetan grabatu zuten, eta langile eta bazkideak kantuan agertzen dira. Antxon Sarasua zarauztarrak konposatu du abestia, eta Fagor Ederlaneko Euskara departamentuak idatzi du letra, Asier Iriondok koordinatuta.

Bestalde, egunotan argitaratu dute ere 50. urteurrenerako sortu duten webgunea: *fagorederlan50.com*. Bertan, Fagor Ederlanen historiaren zertzelada batzuk eta garai guztietako argazkiak, sortzaileen eta haien gertuko testigantzak jasotzen dituen bideoa, orain arte egin dituzten ekintzen kontakizuna, argazki galeriak... denetariko edukiak batu dituzte. Helburua da urteurrena jendearekin batera ospatzea.



Urtemugako irudia. | FAGOR EDERLAN

Txina ez da azkena izango

Une txarretarako formula berezirik ez dagoela dio: "Fagor Taldean dauzkagun erremintak erabiltzea nahikoa izan da une txarrek gainditzeko. Taldeko elkartasunarekin, birkokapenekin eta langileen ahalgintzarekin aurrera irten gara eta espero dugu aurrerantzean ere hala izatea".

Garaietara ere ondo egokitu da Ederlan; azken urteetan, nazioartean zabaldu behar izan dute, bezeroei ondo erantzuteko, eta horretan ere erreflexu arinak izan dituzte: "Gure hasierako urteetan ikusi genuen askotariko merkatuetara zabaldu behar genuela eta, horri eskerrak, automobilarako osagaietan liderrak gara European. Bezeroekin batera, Txinara joateko aukera izan dugu eta, seguru asko, ez da azken zabalkundea izango", esaten du Borja Garitaonandiak.



Bizikleta da errepidean ibilgailu ahulena. Arretaz eta argi ibili.


**Errespetatu dezagun.
Errespetatu gaitzazu.**



Ikusi bideoa:
goiena.net/gaia/errespetatu



Txinako langileen beste bat. | FAGOR EDERLAN-ARTEMAN



Fundizio baten hazkundera

1963
Comet Sociedad Cooperativa sortu zuten Esteibar Fundizioak, Comet Industriak eta Talleres Uribesalgo batuta.

1965-1990
Automobilgintzako osagaien hornitzaile moduan posizionamendua indartu zuen. Merkatuko ibilgailuen fabrikatzaile gehienek homologatu zuten.

1990-2005
Fagor Ederlan Taldea sortu zuten eta horrek Ederlanen proiektua bultzatu zuen. Tafalla eta Usurbilgo langile-bazkideak taldean integratu ziren.

2005-2013
Fagor Ederlan Group-ek ia mundu guztian ditu lantegiak eta presentzia komertziala.

Etorkizunerako pista gehiago ematen du: "Urte bukaera aldera ezohiko batzar orokorra egingo dugu, plan estrategikoa garatzen gabilta eta aldaketa garrantzi-

tsuak egongo dira, eta bazkideei helaraziko zaie ze bide jarraituko dugun. Eta egia esan, negozio berriek indarra hartuko dute Ederlanen".

Kooperatibistak, eredu

Kooperatiban 42 urte eman ditu Gregorio Graciak. Hainbat lanpostutik pasa da -eskulan zuzenekoetatik ardura postu eta bule-

goko postuetara- eta Fagor Ederlaneko eta Mondragon Korporazioko "organo sozialia guztietan" egon da. Fagor Ederlanen garapena "begi bistan dago",

bere esanetan: "Lehen, lana astunagoa zen, eskulan gehiago egiten genuen. Ikerkuntza eta automatizazioan aurreratu dugu asko; bestela, enpresa batek ez ditu 50 urte hartzen. Inbertsioari esker, zeharo aldatu da lana. Oraindik oso lanpostu txarrak ditugu; azken baten, fundizio bat da. Balio erantsirik ematen ez duten lanak kentzeko gai izan behar gara, eta gure apustu handia formazioa da; hor dago etorkizuna".

Bere iritziz, Fagor Ederlanen arrakastaren beste gako bat "gardentasun osoa" da, langile eta bazkide guztien aldetik "konpromisoa" egon dadin behar den oinarria, bere esanetan.

Ederlaneko beterrano horrek atsekabez ikusten du gaur egungo krisia; aurreko guztiak baino larriagoa dela dio, "neoliberalismo basatia" ezarri dela munduan. Horren aurrean, balio kooperatiboak inoiz baino beharrezkoagoak direla uste du: "Kapitalismoa ez da txar-txarra, baina askoz gizatiarragoa izan daiteke, eta guk, kooperatibista gisa, gauzak beste modu batera egin behar ditugu, gure harri-koxkorra ipini han eta hemen".

BORJA GARITAONANDIA | BAZKIDEA

"Edertek-en berrikuntza lana ezinbestekoa da Ederlanendako"

Zeosasunekin dago Fagor Ederlan bere 50. urteurren honetan?

Etxeko botikekin aurrera egin dezakegu, eta egunero ariketa fisiko pixka bat egin eta dieta ona jarraitu behar dugu, itxuran egoteko. Egungo egoera ikusita, ez gaude gaizki, ez.

Bideoklipa egin duzue. Nola bururatu zitzaizuen?

Nik gehien Ederlanen euskarak izan duen eboluzioa ezagutu dut; erakusketaren bat edo beste zer-



bait egin nahi genuen eta, azkenean, bideo-klipa, baina gauza gehiago gehitu dira, ez bakarrik euskara. Jende guztiaren ahotan dago, oso harre-ona eduki du.

Berrikuntza ere garrantzitsua da Ederlanendako...

Automobilgintzan etengabea da, eta puntakoa izateak sakrifizio bat eskatzen du. Egia esan, Edertek-eko lantaldearengatik izango ez balitz, ez dakit nola egongo ginatekeen gaur egun; ezinbestekoa da euren lana.

GREGORIO GRACIA | BAZKIDEA

"Negar-malkoak ditut sortzaileak ikustean: dena eman zuten"

Nola bizi duzu 50. urteurrena?

Oso pozik, nostalgia handiarekin... la-ia negar malkoekin ikusten ditut sortzaileak, dena eman zutenak 63an, inork automobilik ez zue-nean eta bere etxebizitzaren jabe ez zenean... Gehienek esan didate familiei dirua eskatu behar izan zietela sarrera-kuota egiteko. 40 urtean lan egin zuten beste edozeinek bezala.


Fagor Ederlan ondo dabil kri-siari aurre egiten.



50 urte egin baditugu, zerbaitegatik izango da. Urte txar asko ere izan ditugu. Baina automobilaren sektorea nola dagoen ikusita eta Ederlan bere posizioari eusten dagoela ikusita, pentsatzen dut Fagor Ederlanek baduela zerbaite berezia.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso beltz, baina era berean sekulako itxaropenarekin. Kooperatiba ez da formula magikoa, baina gauzak beste era batera egin daitezkeela erakuts dezakegu.



zaharberritze lanak

zetabi
arkitektura bulegoa bergara
943 76 53 09
zetabi@zetabi.eu

ABCDEF G
ZIURTAGIRI ENERGETIKOA
ETXEA ALOKATU EDO SALTZEKO BEHARREZKOA
www.facebook.com/zetabi.arkitektura

ITE

ERAIKIA	ITEa
urtea < 1900	2013
1901 - 1940	2014
1941 - 1965	2015

eraikinen azterketa teknikoa



Bisitariei lanean zer egiten duten erakutsi zieten langileek. | IMANOL SORIANO



Nazioarteko janarekin, zapore berriak ezagutu ahal izan zituzten. | TXOMIN MADINA



Katuska eta Natxin izan ziren umeei lantegia erakutsi zietenak. | IMANOL SORIANO

Copreciren lana bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten zapatuan

- ▶ Ate irekien jardunaldian langileen senide eta lagun eta herritar ugari hartu zuten parte
- ▶ Kooperatibak lantegiak dituen herrialdeetako janariaz gozatu ahal izan zuten bisitariek

TXOMIN MADINA | ARETXABALETA

Aretxabaleako Coprecin bisita bereziak izan zituzten zapatuan. Ez ziren bezeroak, ezta erakunde publikoetako ordezkariak ere. Bazkideen senitartekoak, lagunak eta herritarrak egon ziren lantegian, kooperatibaren 50. urteurrena dela eta antolatutako ate irekien jardunaldian.

11:00etan hasi ziren bisitak, eta lehen unetik ibili zen jendea kooperatiba barrutik ezagutzen.

Lantegiaren gune ezberdinak ikusi ahal izan zituzten, baita Coprecin zer eta nola egiten den ezagutu ere. Langileek eurek eman zituzten azalpenak, baina etxeko txikientzat, gidari bereziak egon ziren, Katuska eta Natxin pertsonaiak, hain zuzen ere.

Aldaketen testigu

Lantegia ezagutzen ez zutenek gain, lantegia aspaldi utzi zutenak ere egon ziren. Duela bederatz

urte erretiratu zen Arantza Garai eta bere lan lekua izan zena ikusten zegoen: "Termostatoan nabilen, eta asko aldatu da: lehen eskuz egiten genuen, eta orain dena automatizatuta dago; oso ondo dago".

"Copreci erakustea izan da helburua: atek zabaldu eta azken urteotan hemen egin diren inbertsioak eta erretiratuei, aretxabaletarrei eta familiakoei erakustea", zioen antolakuntza lanetan ibili

zen Xabi Bikuña langileak, eta gustura zegoen emaitzarekin: "Jende-olde handi barik, baina jendea etorri da".

Nazioarteko ukitua

Ikuskizuna lantegi kanpoan ere bazegoen. Eraikinean Coprecik presentzia duen herrialdeetako banderak eskegi zituzten: Turkiakoa, Mexikokoa, Italiakoa... Eguerdian gosea zuenak, herrialde horietako janak eta edanak

izan zituen aukeran. Baita herrialde horietako musika ere: Mexikoko Esencia de Jalisco mariatxi taldekoek girotu zuten eta ekitaldia. Umeendako, eskulanak, puzgarriak eta zezen mekanikak egon ziren, eta. 50. urteurrenaren harira kooperatibako langileek egin duten *Lantegixa herri* kantua-
ren bideoklipa ere eman zuten (ikus QR-a).



EDURNE URIBESALGO
ESKORATZA



"Duela hamabi urte egon nintzen hilabetez lanean, eta aldatuta ikusten dut, handiagoa. Ahizpa dut orain hemen lanean. Ideia ona iruditzen zait lantegia erakustea, eta umeendako, plan perfektua".

MANOLI MERINO
ESKORATZA



"Hemen lan egiten dut, eta gaurkoa oso ondo iruditzen zait; horrela familiakoek ikusten dute non eta zer egiten dugun. Jende askok gainera ez daki lantegi bat nolakoa den barrutik, eta bisitatzeak aukera ona da".

OIER ETXEBARRIA
ARETXABALETA



"Copreciko langilea naiz, eta seme-alabekin, emaztearekin eta familiakoekin etorri naiz. Medikua edo abokatuaren lana zein den azaltzea erreza da, gurea ez hainbeste, eta horrela ikusi egiten dute".

BEGOÑA GONZALEZ
ARRASATE



"Senarrak egiten du lan hemen, eta gustatu zait bisita: ez nengoen egonda, ez nuen ezagutzen, eta detaile polita iruditu zait. Lantegia dagoen leku bakoitzeko jana ekartzea ere ideia aparta izan da".

ALBERTO ASURMENDI
ARAMAIO



"29 urte daroztat hemen, eta alabei, emazteari eta ilobari erakutsi diet. Egunaren zati handiena hemen ematen dugu, eta horrela gure lana zein den ere ikusi dute. Lantegia herrira gerturatzeko modua ere bada".

MUk berrikuntza eta ekintzailtzako zentroa zabalduko du Bilbon

MU-BBF (Bilbao Berrikuntza Faktoria) datorren ikasturtean prest egongo da

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Bilbao Ekintzak oraintsu arte Uribitarten okupatzen zituen lokaletako giltzak eman zizkion egubakoitzean Mondragon Unibertsitateari, honek MU-BBF (Bilbao Berrikuntza Faktoria) proiektua abian jartzeko.

Bilboko Udalak eta Mondragon Unibertsitateak udalaren lokal horien lagapena hamar urtez arautuko duen lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten apirillean, eta akordio horri esker, egubakoitzaz geroztik, guztira 5.900 metro koadroko berrikuntza garatzeko gune berria izango du MUk Bilboko erdigunean.

Berrikuntza eta ekintzailtzak

Unibertsitateak berrikuntzaren eta ekintzailtzaren arloetan emango du irakaskuntza. Gradu-ko tituluak, masterrak eta etengabeko prestakuntzako programak emango dira. Prestakuntza programekin batera, gradu-amaierako proiektuak eta master amaierako proiektuak garatuko dira. Era berean, ikerketa eta jakintzaren transferentziako jarduerak sustatuko dira.

Honek guztiak sormena zein berrikuntza erraztuko ditu. Gainera, aukerak eskaintzen dituzten sektore berrietara zuzendutako enpresa-ekimen berriak

sustatzea eta erakartzea ere izango da laborategi berri honen asmoetako bat. Helburu hauek enpresen inkubazioaren bidez eta jarduera ekonomikoaren adar desberdinetan sortzen diren ideia berriak garatu eta bultzatzen dituzte.

Zentro berri horren xedek prestakuntza ematea, enpresen inkubazioa eta sendotzea izango dira. Proiektuaren sustatzaileen arabera, jokaera honek ekonomia berriro eraldatzeko prozesu bati aurre egin beharri erantzuten dio; ekonomiaren eraldaketak berrikuntzan eta ekintzailtzan oinarritzea beharrezko da-eta.



Urritik aurrera, pertsonak erantzun dituzte deiak. | GOIENA

Osakidetzak telefonoz txanda hartzeko sistema aldatuko du

Sistemak jaso dituen kexei erantzunez anbulatoriora deituta pertsona batek erantzun du

I.G. | ARRASATE

Iazko udazkenean jarri zuen martxan Osakidetzak, Osarean, txanda telefonoz hartzeko sistema berria. Osasun zentroa deituta, makina batek erantzuten du eta emandako aukerei jarraituz mediku edo erizainarentzat txanda automatikoki ematen du. Baina sistema ez da oso eraginkorra izan.

Arrasateko anbulatorioko harrerako langile baten hitzetan "sistemak arazo ugari sortu ditu eta telefono deiak arindu beharrean gutxitu egin ditu". Honela harrerara gerturatzen zirenen kopurua dezente handituz. "Gure lan karga handitu egin da eta honaino etorri behar horrek, erabiltzaile ugariaren haserrea piztu du".

Nagusiek arazo gehien

Anbulatorioko erabiltzaile gehienak pertsona nagusiak direnez, hauek izan dira arazo gehien izan dituzten erabiltzaileak. Batzuek makinak zioena ulertzeko zailtasunak zituzten eta beste askok minutu batzuen ostean prozesua amaitu gabe eskegi egiten zuten. Honela, udazkenetik hona, txanda hartzeko guztiz autonomoak ziren

adineko herritar askok telefonoz deitzeari utzi diote. Prozesu guztia gauzatzen zutenek gainera, kasu askotan pertsona batekin hitz egitean zerotik hasi behar izaten zuten.

Arrasaten ez ezik, sistemak kexa ugari jaso ditu. Kexa hauek gainera euskal autonomia erkidegoko beste osasun zentroetan ere bai, sistema orokorra, zentralizatua baita. Hau guztia gutxi balitz gainera, osasun zentruetik adierazi moduan gaizki ulertu ugari ere izan dituzte "azalpenak ulertu ez eta txanda gaizki hartu dutenak ere izan ditugu".

Aldaketa urritik aurrera

Asmoa ona zen arren, sistema sortu dituen arazoaren ostean, Osakidetzak atzera egitea eta lehengo sistema pertsonalizatua bueltatzea erabaki du. Hasieran aldaketa ekainean egiteko asmoa zegoen arren, azkenean udazken arte atzeratu dute.

Oñatiko anbulatoriotik jakitera eman duten moduan aldaketa ez urriarte gauzatuko. Sistema automatikoa baina ez da desagertuko eta linea guztiak okupatuta daudenean sistemak erantzun du deiak.



Iosu Zabala, Mondragon Unibertsitateko errektorea, jaso zituen eraikin berriko giltzak. | VK COMUNICACION

Lehen fasearen ostean, oinezko patruilak gainontzeko ertzain-etxeetan ezarriko dira

Lehen fasean, patruilak Donostian, Zumarragan eta Bergaran ezarri zituzten

Z.V.D.M./I.G. | BERGARA

Ertzaintzaren 2013-2016 plan estrategikoaren helburu nagusia "herritarrengandik hurbilago egotea da" eta horretarako oinezko patruilak edo korrikak -oinezko patruilak hala deitzen diete- deitutakoak sortu dira eta ekainean burutu da planaren lehengo fasea.

Denbora horretan, Bergarako ertzain-etxetik aditzera eman dutenez, patruilatza bideratutako denboraren ehunekoak, "hamabost aldiz handiagoa izan da, eguraldiagatik hilabete konplexua izan arren". Kalera irtetearen

gaineko balorazioa ere egin dute Bergaratik: Esperientzia positiboa izan da, eta pozik gelditu dira bai herritarrek eta baita ertzainak ere. "Delituaren bilakaeran izan duen eraginari dagokionez, denbora-tarte handiagoa behar dugu ondorioak ateratzeko".

Froga fase arrakastatsua

Tamaina eta delitu-tipologia ezberdinak dituzten Gipuzkoako hiru ertzain-etxetan abiarazi zuten korrikak gehitzeko plan pilotua: Donostian (hiri eremu handia), Bergaran (eremu ertaina) eta

Zumarragan (eremu txikia).

Ertzaintzak garatutako plan estrategiko berri honetan hiru korrika eredu ageri ziren: Bate-tik, delituak gertatzeko aukera handiagoa duten eremu eta ordu-tegi-takoak. Bestetik, herritarren segurtasun-pertzepzioa handitzeko xedea dutenak. Eta hirugarrenez, ertzainen esperientziaren eta ezagutzen ondorioz eginak.

Data zehatzik eman ez duten arren, laster, bigarren faseari ekingo diote eta korrikak pixkanaka gainontzeko ertzain-etxeetan ere egongo dira.

Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIRUA OÑATIN

WWW.GOIENARENT.COM

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan 20€-tik eguneko
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

ZABALIK

JUDITH ERAÑA
http://goiena.net/iritzia/



Bizikleta bizi izatea

Azken boladan, zoritxarrez, askoren ahotan dabilen gai bat darabilkit buruan, gainetik ezin kendu! Txikitatik arnastu dut bizikleta mundua; aita bizikletazale amorratua eta geroago, mutila ziklista (badakizue maitasun kontuetan bihotzak agintzen duela!). Bizikleta beti egon da nire bizitzan. Emozio eta zirrara handiko bizipenak eskaini dizkit bizikletak, gozoak batzuk, gazi-gozoak besteak.

Gertutik bizi dut bizikletarako afizioa, eta ikusi, entzun eta bizi izan ditudan esperientziek lerro hauek idaztera eraman naut. Penatuta eta sentikortu sentitzen naiz, gauza hain politik eskaintzen dituen gailu honek bizi duen momentu latzagatik.

Lanera joateko, aisialdirako, denontzako eta denetarako aukera ematen du bizikletak. Are gehiago, gure bailaran, betidanik izan dugu afizioa eta debozioa. Baina azkenaldian bizikletaren alde krudelak alde polita gainditu duela uste dut: dopina, sarien balio gabetzea eta, gertuago, istripu larriak, batzuen errepetu eza eta, ondorioz, errepidera ateratzeko beldurra.

Badituz bizikleta afizioz duten lagunak eta bizikleta erosi eta kirol honetan trebatu direnak. Bizikletaz inguru ezberdinak ezagutzeko parada izan dute, sentsazio berriak bizi eta lagun berriak ezagutu. Tamalez, gogotsu hasitako asko bizikleta *ixegi* beharrean izan dira. Alde positiboa, alai ezagutu dute, baina alde beltzak irabazi dio partida erabakia hartzeko momentuan. Bizikleta alde batera utzi dute, errepidean dagoen arriskuagatik. Finean, errepidean galtzeko gehien duena bizikleta gainean doana da, bai bera, bai inguruko lagunak eta familia. Denok ahalegina eta zentzua jartzen badugu, jendeak bizikleta ez uztea eta lanera bizikletaz joaten direnak gehiago izatea lortuko dugu. Ekin dezaiogun bidetari eta ez dezagun utzi hainbeste emozio sorrarazten duen afizio hau gainbeheran erortzen.

Beraz, izan ditzagun begiak errepidean eta ez norabaiterako bidean!

"Alde krudelak alde polita gainditu du: dopina, istripuak, errespeturik eza..."

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Santa Graziko La Verna

Aspaldi joan barik geunden, eta Belagua inguruan egin dugu asteburu-pasa. San Martingo Harrian urtero egiten duten Hiru Behien Zerga ikusten izan ginen. Aste bukarako aurkikuntza, ordea, lur azpian egin genuen. Santa Grazi herrian, Kakuetak arroilatik gertu, La Verna izeneko lur azpiko gela ikusteko aukera ematen du espeleologo talde batek. Ikusgarria da mendi baten bihotzean neurri horretako kobazuloa ikustea. Neurritz, lur azpian aurkitutako munduko laugarren gela handiena dela esan ziguten. Arazo bakarra, ez duela inork euskaraz egiten. Akaso, joaten garen euskaldunok eskatzen badugu, hartu beharko dituzte neurriak.

KALE INKESTA

Abuztuan oporretan joateko zein toki gomendatzen duzu?



JONE SOTO
ARRASATE

"Mediterraneo aldera eta hondartza daukan tokiren batera. Igerilekua ondo dago, baina hondartzara joateko beroari aurre egiten laguntzen du".



MIREN GARCIA
ARRASATE

"Espainiako hegoaldea. Kostaldera joaten gara beti; eguraldi ona, hondartza eta igerilekua bilatzen ditugu, umeekin joateko plan ona da-eta".



MARIA PILAR SAN MIGEL
ARRASATE

"Hego zein Ipar Euskal Herriko edozein toki. Orain eguraldi ona dugu eta ura Mediterraneoan bezala dago, bero-beroa. Beraz, hemen oso ondo".



ANA BOISA
ARRASATE

"Levantera. Itsasoko ura beroagoa da eta eguraldi ona ziurtatuta dago. Hango itsasoa hemengoa baino lasaiagoa izanda, gustura egoten naiz".

HANDIK ETA HEMENDIK

Zorionak, Raffaella!

Markos Zapiain
eibar.org/blogak/zapiain/

Rafaella Carrak 70 urte bete ditu ekainaren 18an, baina ez dugu merezi bezala zoriondu.

Konpañero on bat izan du luzaro bikotekide, Gianni Boncompagni hain zuzen.

"Amodioa ondo egiteko hegoaldera etorri behar" ospetsua zentsuratu egin zioten, eta horren ordez "Ondo maitemintzeko hegoaldera etorri behar" kantarazi zioten.

Famatuak dira Carraren beste zenbait abesti ere: "Amatxo, eman ehun pezeta", "Zurrumurru-zurrumurru" edota "Maitasunari dagokionez, hastera da kontua".

1997an, Rafaella Carrak, Ana Obregonen azken orduko baja baten ondorioz, Urtezaharreko hamabi kanpai jotzeak aurkeztu zituen, Ramon Garcia jatorrarekin batera.

Orobat, arrakasta handiz aurkeztu zituen Italian *Buona sera Raffaella* eta *Carramba, che sorpresa!* programak; baita *Carramba, che fortuna!* ere,

aurrekoaren olatu aparra aprobetxaturik.

Duintasun handiko emakumea, Gemini izaki, uko egin zion Berlusconiaren bunga-bungetan popa ipintzeari, eta horrek ekarri zuen artista ilehoriaren gainbeheraren hasiera.

J.K. Rowling idazlearen liburu sekretua

Joxe Aranzabal
blogak.goiena.net/faroa/

J.K. Rowling ezagun egin zen munduan *Harry Potter* eleberri sorta idatzi zuenean, hainbeste ze 450 milioi aletik gora saldu baitzituen, hainbat hizkuntzatan, euskaraz ere bai, Iñaki Mendigurenek itzulita, Elkar argitaletxean.

Ondoren beste era bateko liburu bat kaleratu zuen, *Eserleku hutsa*, Alberdaniak eta Ereinek aterata batera sailean, baina kritikari askoren egurra jasota.

Horregatik seguruenik, eta nahi zuelako idatzi izen-deitura ezagunen presio barik, J.K. Rowlingek erabaki zuen idatziko zuela polizi eleberri

bat, baina beste izen batekin sinatuta. Joan den apirilean *The Cuckoo's Calling* argitaratu zuen, Robert Galbraith izenarekin, alegia, izen ezezagun batekin.

Baina joan den astean, Richard Brooks, *Sunday Times* egunkariko arte editoreak iradokizun bat jaso zuen Twitter-en, eta ikertzen hasi zen, harik eta aurkitu zuen arte liburu hori benetan J.K. Rowling idazle famatuak idatzi zuela. Idazle biek -benetakoak eta asmatutakoak- hainbat elementu partekatzen zituzten: agentea, editorea eta argitaletxea. CBS News kateak eman du horren berri.

The Independent egunkariaren arabera, joan den astea arte liburuaren salmentak oso apalak izan ziren, 1.500 ale saldu baitzituen.

Aitzitik, jakin denean egilearen benetako nortasuna, salmentak hazi egin dira ikaragarri, liburu agortu arte.

Hori ikusita, argitaletxea 300.000 aleko tirada prestatzen ari da asteburu honetarako.

Euskaratuko ote da liburu hau?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urzelai
Maketazia Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketak Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain, Ane Berebizar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko uztaileko zozketetako irabazleak



Arrasateko Hiper Eroskik emandako liburu elektronikoa

Mikel Alberdi Larrañaga (Oñati)



Baserrisarea.com-ek emandako otarrak

Juan Jose Zuatzubiskar Etxabe (Arrasate)

Izaskun Agirregabiria (Bergara)

M. Angeles Padilla (Bergara)

Iziar Balzategi (Bergara)



Arrikrutzerako sarrerak

Jabier Uribetxebarria Bolinaga (Arrasate)

Jose Antonio Gardoki Beitia (Arrasate)

Arantzazu Uribesalgo Muxika (Arrasate)



Pamielak emandako liburu sortak

Unai Iñarra Lasa (Bergara)

Miren Amasorrain Lizarralde (Bergara)



Pamielak emandako dvd-liburuak

Iñaki Gantxegi Barrena (Bergara)

Jon Mikel Larrañaga Irizar (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikrutzeko sarrerak. Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00

Beste sariak. Saria jasotzeko zatoz, beranduenez uztailearen 26rako, GOIENAREN Aretxabaletako bulegora. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduetgia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



Josu Ugarte | Mondragon Internacionaleko zuzendaria eta 'España está en crisis, el mundo no' liburuaren egilea

"Denok gaudela krisian eta irtengo garela uste dugu, baina mundua ez dago krisian"

- ▶ Josu Ugarteren iritziz, enpresa guztiak irten behar dira atzerrira, etxekoari eutsita
- ▶ Administrazioen aldetik enpresendako zerbitzuak eskatzen ditu, "baina ez doakoak"

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Oihartzuna izaten dabil Josu Ugarte arrasatearraren *España está en crisis, el mundo no* (Deusto) liburua; *Cinco Días* aldizkari espezializatuaren eskutik txat-a egin zuen Ugartek, eta *El País Negocios*-en artikulua irtengo da laister. Mondragon Internacional-eko zuzendaria da Ugarte, eta argi dauka enpresen etorkizuna nondik datorren: nazioartera irten behar dira.

Tamaina guztietako enpresendako da egokia *España está en crisis, el mundo no*?

Liburuak bi zati nagusi ditu: lehenengo, gertatzen dabilena ulertzen laguntzeko zatia, eta hori ekintzaileendako, enpresa txiki eta ertainendako (ETE) eta enpresa handiendako da egokia. Baina zailtasun handienak ETEek dituzte, eta, bigarren zatian, palanka batzuk proposatzen ditut; horiek ETEendako eta administrazioendako dira.

Eta nola azaltzen duzu gertatzen dabilen guztia?

Balio-katea zatitu egin da. Lehen ikertu, garatu, ekoiztu eta saldu hemen edo Europan egiten genuen; kostu txikiko herrialdea ginen. Gero kanpoan saltzen hasi ginen. Horren ondoren, kanpoan erosten. Orain zailena egin behar dugu: garatzeko bidean dauden herrialdeetan, gama altuetan ipini gure produktuak. Horrez gain, teknologia-berrikuntza ere zatitu egin da. Bestalde, garatzen dabilen herrialdeetan industria badabil garatzen; eta, horrez gain, etxeko demanda ez da handitu behar, ez Euskadin ez Espainian.

Gero, lehiakortasunaren gakoak ditugu: oso kostu ona, puntako teknologia edo premium markak, hau da, kontsumitzailea zerbait gehiago ordaintzeko gertu dagoen marka bat. Eta hiru aukera daude: multilokalizazioa, garatzen dabilen herrialdeetan klase ertaina ugaritzen dabilela –mundu osoan 80 milioi pertsona urtero; Gipuzkoan 750.000 gara– eta munduan egongo diren azpiegitura-proiektuak.

Hori dena ulertuta, palanka hauek proposatzen ditut: aurre-ratutako merkatu-ikerketak, parke industrialak edukitzea, enpresa integralak ezartzeko zerbitzuak izatea, erbesterratuak ondo kudeatzea eta diplomazia korporatiboa izatea, hau da, helmuga-herrialdean babestuko zaituen norbait izatea.

Argi dagoena da geuk irten behar dugula krisitik, inork ez gaituela aterako.



Josu Ugarte, bulegoan. | LEIRE KORTABARRIA

Atzerrira joatea eta produktuak hantzeaz zailagoa izango da 10 lan-gileko enpresa txiki batendako.

Baina enpresa txiki hori ere irten daiteke atzerrira. Handien arazo berbera dute: euren produktu batzuk ez dira lehiakorak. Orduan, nik proposatzen dudana hauxe da: produktu horiek eroan ditzatela garatzen dabilen herrialde batera, bezeroarekin lehiakorak izaten jarraitzeko eta orain baino askoz gehiago saltzeko. Eta, nire iritziz, ekoizteko aukera emango dien espazio txiki bat izatea utziko dien hemengo enpresak bilatu beharko lituzkete enpresa txiki horiek. Guk Txekian badugu halako bateren bat: kooperatiba bat beste kooperatiba baten barruan. Eta administrazioari esaten genion enpresendako pabilioi modularrak egin zitzakeela.

"Geografikoki dibertsifikatuta bagaude, lortuko dugu esportatzea"

"Esportatzea ez da helburua, multilokalizazioaren ondorioa baiziki"

Beraz, bai, ETEak internazionalizatu daitezke. Nazioarteko gure lehenengo 10 enpresetatik bost ETEak dira. Nazioartera joan eta hemengo lanari eusten dabilen enpresak dira.

Eta Mondragon bezalako talde baten babesa ez duen ETE batek nola egin dezake hori bera?

Administrazioak ere zer egin jakin behar du. Administrazioak ETEei zerbitzuak eman behar dizkie, eta ez doan, izan ere, merkatu-ikerketaren baten 12.000 euro ez dituenak gastatu gura gero ez du askoz gehiago gastatu gura izango. Baina zerbitzu horiek eman diezazkietela ETEei; bestela, oso zaila da beste 10 lagun kudeatzen dituen batek Txinan, Brasilen edo Errusian ze gertatzen dabilen jakitea.

Hortaz, internazionalizatzea aukera ez ezik, betebeharra ere bada.

Kanpora joan zirenak hemen hazi egin ziren; eta kanpoan zeudenek askoz hobeto eutsi diote krisiari. Eta hemendik merkatu batera esportatzen dabilen enpresak merkatu horretan ezartzen direnean, esportazioak gehiago hazten dira, produktu bakarrarekin ezartzen direlako eta hemendik produktua bidali behar dutelako bakarrik. Etorkizunean bizi irauteko modu bakarra da.

Txinaz, Brasilez... gabilta, orduan.

Asian, bereziki Txina, eta Vietnam oso ondo garatzen dabil. Latinoamerikan, Mexiko eta Brasil oso ondo doaz; gainerako herrialdeetan,

industria aldetik konfliktuagoa da. Brasilek Hego Ameriketako beste herrialde guztiak batera baino biztanle gehiago ditu.

Atzerrira irtetea eta deslokalizatzea ez da gauza bera.

Ez. Deslokalizatzea da aktibo industrialak beste herrialde batera eroatea, jatorriko lekuan enplegua kenduz. Gu kooperatibistak gara, Euskadin oso kolektibistak gara eta, nazioarteratzekoan daroaten 20 urtean eta atzerrian bizi izan nintzen 12 urtean, ez dut ezagutu hemen dena itxi eta dena kanpora eroan duen euskal enpresarik. Multilokalizatu egiten gara gu: lantegiak irekitzen ditugu beste herrialde batzuetan, merkatu-kuota handitzeko eta etxekoa osatzeko.

Administrazioari palanka batzuk proposatzen dizkiozu. Badabil nahikoa egiten?

"Administrazioen zerbitzu barik, oso zaila da ETE bat atzerrira irtetea"

"Atzerrian lantegia duten enpresak hazi egiten dira jatorriko etxean"

Azpiegitura badaukate: SPRI, Eusko Jaurlaritza, Ixek eta bere ordezkariak komertzialak... Baina enfokea aldatu beharko litzateke: esportatzea ez da helburua izan behar, multilokalizazioaren ondorioa baiziki. Munduan baldin bagaude, gehiago esportatuko dugula frogatuko dugu. Bestela, ezin izango dugu, kostu onak ematea konplikatu delako gure kasuan, teknologia aldetik erdi mailan gaudelako, eta ez ditugulako premium marka asko. Baina geografikoki ondo dibertsifikatuta baldin bagaude, esportatzea lortuko dugu. Hori da sekretua.

Fagor Etxetresnek, adibidez, zer egin dezakete hozkailuak edo garbigailuak lehiakorak izan daitezkeen kanpoan, deslokalizatu gabe?

Hemengo produktu espezifikokoak direlako edo lote gutxiagotan egiten direlako eta marjin interesgarriak ematen dituztelako, hemen ekoiz daitezkeen guztia hemen utziko dute. Adibidez, hozkailua estandarra da ia mundu osoan eta edozeinek egin dezake. Baina enkastrea, labeak eta gaineko sukaldeak, oso desberdina da herrialde batetik bestera. Hain desberdinak direnez, eta aldi berean zerbitzatu behar direnez, hemendik saltzeko aukera ematen dizu. Oso zaila da hori txinatarrek egin ahal izatea.

Askoz luzeago iraungo du gaur egungo egoerak, zure ustez?

Ez badugu ezer egiten, bost, sei, hamar... urtean ez gara gure onera bueltatuko. Ez badago ekintza indartsu eta global bat lehenbailehen, orain baino okerrago ibiliko gara.

Mundua ez dagoela krisian diozue liburuan.

Aurten, Italiaren ekonomia % 1,8 jausiko da, Espainiarena % 1,6 eta Frantziarena % 0,5. Europako Batasuna ez da ia ezer haziko. Horrela begiratzen baduzu, denok krisian gaude eta irtengo gara. Baina ez da horrela. Garatzen dabilen herrialdeak % 3 haziko dira aurten, eta % 3,7, datorrenean. AEBak % 2,5 haziko dira.

1994tik 2003ra bitartean, mundua % 3,4 hazi zen, eta guretako urte bikainak izan ziren. Garatzen dabilen herrialdeendako, orain da mundua oso ona. Mundua bere onera noiz bueltatuko den zain gaude, baina bueltatu da. Hori da arazoa. Prentsak ez ditu gauza horiek esaten. Baina ezin dugu ez ikusiarena egin. Gure buruari galdetu behar diogu ea zerbait egin dezakegun. Eta bai: paradokikoki, mundura irten behar gara.

HERRIAK

ANTZUOLA

Herria dotoretzen duten kolore askotako balkoien erakusketa

- ▶ Lore Eder lehiaketa egiten dute urtero Antzuolan eta aurten 6 finalista egon dira
- ▶ Herritarrek izan dute azken hitza: Blanca Legorbururen balkoia izan da irabazlea

ZURIÑE V.D.M. | ANTZUOLA

Mota askotako lorak daude: gorriak dira batzuk, txuriak zein moreak besteak; petalo txikiak dituzte batzuek, handixeagoak besteek... Eta gehienek, guztiek ez esatearren, edertasuna transmititzen dute.

Edertasun lehiaketa

Antzuolan ezaugarri hori baliatuta, lehiaketa bidez eta 1996 ezkeror erabakitzen dute herriko balkoirik ederrena zein den. Azken urteetan herrian eta herritarrengan uztartzen joan den ohitura da, gainera.

Batzuk lehiaketaren jakitun eta besteak barnean daramatelako, baina antzuolar asko dira euren leiho zein balkoia dotore-dotore ipintzen dituztenak. Eta urte bakoitzean bizilagun batek eduki du herriko balkoi txukunena izatearen ohorea. Aurtengo Lore Eder lehiaketaren irabazlea egubakoitzean, uztailaren 19an, eman zuten jakitera: Blanca Legorbururen balkoia jaso zituen boto gehien.

Herritarrek epaile

Lehiaketa egiten hasi zirela urte dezente dira eta aurten berritasunak eduki ditu ekimenak. Izan ere, ohiko epaimahaiak barik, herritarrek izan dira saria nori eman erabaki dutenak.

Horretarako, batzorde batek herritik buelta bat eman eta antzuolar guztien artetik sei balkoi hautatu zituen. Horiek izan dira lehiaketako finalistak, eta herritarrei ezagutzera emateko, hautatutako balkoien argazkiak panel batetan ipini zituzten ikusgai hainbat egunez.

Egubakoitzean, jaien egitarauaren baitan botoa eman zuten bertaratutako herritarrek eta jende ugari animatu zen bere balkoi gogokoena bozkatzera. Hori horrela, 161 boto jaso zituzten antolatzaileek eta horietatik 62 izan ziren Blanca Legorburu eta Nicolas Zabalo senar-emazteen balkoiarentzat.

Legorburuk pozik hartu zuen izendapena, eta herritar guztiak animatu gura izan ditu balkoi eta leihoak txukun eta dotore ipintzera, "herria askoz ederra goa baitago".



Herritarrek erabakita, Antzuolako balkoirik ederrena, Zurrategikoa. | IMANOL GALLEGO



Lore txuri-gorriez osatuta Ondarre kaleko balkoia. | I.G.



Sagasti 4ko balkoia ere finalista izan zen. | I.G.



Lapatxetxerriko balkoi finalista. | I.G.



Ibarrondoko balkoia. | I.G.



Sagasti 3 balkoi finalista. | I.G.

"Ez nuen espero eta ezusteko polita izan da"

Blanca Legorbururen balkoia izan da 2013ko Lore Eder lehiaketako irabazlea. "Finalisten artean nengoela banekien baina ez nuen espero irabazterik; eta ezusteko polita izan da". Gustura apaintzen du bere etxeko balkoia. "Txikia da, eta ez ditut lora larregi ere. Kolore ezberdinetako surfiniak ipini ditut, bizitasun handia ematen diotelako balkoiari". Goizero eta iluntzero ureztatzen ditu landareak, "bestelako zaintza berezirik ez dute behar". Eta ez berak bakarrik, Legorburuk aitortzen du etxeko laguntza handia jasotzen duela. "Landareek ere elikatu behar dute bizitzeko eta asko laguntzen didate, nik ezin dudanean ureztatuz, esate baterako".



Legorburu iloba Markelekin. | ARANTZAZU EZKIBEL

DATUAK

62

BOTO

Lehiaketako 161 botoetatik 62 jaso zituen irabazleak.

1996

URTETIK

Urte horretan egin zuten aurreneko lehiaketa.

Festen ostean, urteko astelehen gogorrena izango dute gaur Antzuolan

- ▶ Mairuaren Alardea izan da jaietako ekintza nagusia
- ▶ Hontza balkoitik jaitsi eta jende artean ibili zen

IMANOL GALLEGO | ANTZUOLA

Etxeko txikienak izan ziren jaietako ongi etorria eman zieten lehenak. Aurrez udalekueetan entseatutako dantzekin girotu zuten eguen goiza. Dena den, aste bukaeran antzuolarrek argi utzi dute jaietan kalera irteteko bultzada gutxi behar dituztela.

Kale giroa protagonista

Dudarik gabe, eguraldia lagun, kalea izan dan aurtengo Antzuolako jaietako protagonista. Goizean goizetik plaza inguruak jendez bete dira egunero, eta tortilla patata lehiaketa izan, zein haurrentzako jolas parkea izan, Antzuolarrei kosta egin zaie etxera erretiratzea. Antzuolar baten

hitzetan: "Jai hauen funtsa kale giroa izan ohi da beti".

Tradizioari uko egin gabe, egitarauko ekitaldi nagusienek, urtero bezala, jende gehiago batu dute. Lehen eguneko herri afariaren ostean hontzaren jaitsiera eraberrituak oso erantzun ona izan zuen. Aurten su artifizialen orde, jendearen kantuek eman zioten ongi etorria jaietako animalia honi. Bere esker ona azaltzeko gainera, hontza udaletxeko balkoitik jaitsi eta gainontzeko antzuolarren artean galdu zen.

Mairuaren Alardea

Lainoek ikuskizuna zapuzteko mehatxu egin arren, ohiturari eutsiz Antzuolako batailoiak ire-

ki du aurtengo desfilea, atzean mairua zuela. Ordu eta erdiz Antzuolako batailoiak Abd-Al Rhaman III.a makurrarazi zuen eguna irudikatu zuten.

Gaur makur eta triste egongo direnak antzuolarrek izango dira. Izan ere, aste bukaera osoa kalean pasa ostean, egun gogorra izango da. Hala ere, atzo beste antzuolar batek esan zuen moduan: "Festak alai pasatzeko dira eta aste egunak... Ba ahal dugun moduan igaroko ditugu".

Argazki gehiago: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Umeeek asko disfrutatu zuten.



Behia edo bigantxa, zein da arriskutsuagoa?



Ikurrin dantzarekin hasi zituzten jaiak Antzuolan.



Hontza udaletxeko balkoian ez ezik, plazara ere jaitsi zen.



Txikiak



Elizako arkupeetan batu ziren antzuolarrek herri bazkaria egiteko. | ARGAZKILARIAK: SORIANO, ARANTZABAL, EZKIBEL, MORALES



Kapitainak gidatu zuen Mairuaren Alardea.



EIDER MEDIA ETA LEIRE BARRENA

"Oso ondo hasi ditugu aurtengo jaiak. Antzuolan bixamona eduki beharrean gero eta gehiago gozatten dugu. Domeka egun gogorra izango da, baina Larrain dantzarako ongi egotea espero dugu".



ENERITZ, AMAIUR, MAREN ETA NAROA

"Primerako festak dira hauek, momentu oro, zerbait egiteko aukera dago. Gu barraketan, kontzertuetan, postuetan... izan gara. Aurten gurasoak ongi portatu dira eta gauean ere irten gara".



JAVI, IBAI, MADDI ETA MAIA

"Bi alaba ditugu eta festak zeharo aldatu dira. Lehen gauez egiten genuen festa baina orain egunez irteten gara eta sorpresa ikargarria izan da. Bixamona pasatzen egon beharrean herrian ekintza piloa dago eta jende askok parte hartzen du. Giroa ezinhobea da".



Izan dugun eguraldiगतिक edo baina mairuaren azalak laguntza estra bat behar izan zuen.



gotik egin zuten dantza jaietako lehen egunean.



Ondoren energiak berreskuratzeko bazkaria izan zuten.



Alaitz Jauregi eta Esther Garaik egin zuten tortilla onena.



Bergarako udal bandak ekitaldi polita egin zuen.

ALKANDORAREN KOLKOTIK



IMANOL GALLEGO
KARGUAXX |
'@imanolgallego'

Kalea gurea da!

Duela urte batzuk politikari ezagun batek kalea berea zela aldarrikatu zuen moduan, festetan kaleak herritarrenak izan behar dira. Nagi, tristura eta logurak etxean utzi eta gozatzeko prestutasunez kalera irten beharra dago.

Aurten alkandora hawaiarra soinean ibili naiz bailarako udako festa guztietan eta zorionez ez naiz bakarra izan. Herri bakoitzean, bertako parrandero, saltsero eta bixamenero piloa ezagutu ditut. Eurak izan dira nire bidailagun eta etxean geratu beharrean kalera irten diren horiei ere nere esker handiena. Zuek zarete jaien funtsa!

Egitarau ezberdinak jendearen erantzunik gabe tontakeria galanta besterik ez lirakeke izango. Hortaz hurrengo urtean ere kalean ikusi nahi zaituztet!

Gogora dezagun kalea gurea dela! Baina ez Salou edo Benidormeko kaleak, gure herrietakoak baizik. Ez dugu hondartzarik izango baina...

Jaiak, algara, zarata eta barrearen sinomio dira! Esmatu ditzagun herriak! Alaitu dezagun bizitza! Gora gure herrietako jaiak! Eta gora zuek!

P.D: Horrenbeste festa eta algararen ostean, uda agustinoen klausura konbentu batean igaroko dudana susmoa daukat. Sartzen uzten badidate behintzat...



OLATZ LEZETA

"Egunean zehar ez gara gelditzen, bigantxak, tortilla lehiaketa, jolas parkea... Jaietan umekin ezin da atsedenik hartu!".



AITOR, JOSU, ANDER, ADRIAN ETA ENDIKA

"Antzuolako jaiak lagunekin kalean pasatzeko egun onenak dira. Guk ia 24 orduan kalean ematen ditugu batetik bestera. Bigantxak, kontzertuak... Antzuola herri txiki bat den arren, bertako festak handiak dira eta horiek gozatzeko kalean egon behar duzu".



KARMEN, INES, MAUREEN, SIOBHAN ETA ROS

"Festak lanean eman ditugu baina gustura gaude! Urtero presoen aldeko txosna bat jartzen dugu, eta aurten, arrakasta erabatekoa izan da. Jaietan 100 kilo solomo saldu ditugu. Egunero lan egin dugun arren, parranda egiteko tartea ere izan dugu".



Mandala egin zuten neska-mutilek kolore ezberdinetako gatza erabilita. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

LEINTZ GATZAGA

Gatzaren erabilgarritasuna argi geratu zen zapatuan eginiko Gatzaren Egunean

Gatzagen I. Topaketaren egitarauaren baitan antolatu zuten egun berezia

ZURIÑE V.D.M. | LEINTZ GATZAGA

Gatz berdea, larrosa, grisa, urdina eta txuria; horiek izan ziren mandala egiteko baliatutako koloreak. Gurasoek lurrean eginiko marrazkia gatzaz estali zuten neska-mutilek, eta irudi ederra geratu zen plazaren erdian.

Leintz Gatzagan zapatuan ospatu zen Gatzaren Egunean egitarauaren baitan burutu zuten ekintza eta bestelakoak ere izan zituzten eskuartean. Goizeko lehen orduan Jakion eta Gatz Museora bisitak egin ziren, esaterako.

Txokolatea, taloak, gatza...

Herriko lagun ugari hartu zuten parte Gatz Egunean. Sorgiñak taldekoek, esaterako, taloak egin zituzten, barruan txokolatea sartu eta gura zutenek doan dastatzeko aukera eduki zuten. "Herriagan pentsatuta antolatzen diren kontuetan pozik aritzen gara".

Eta gainera, Oñatiko txokolategileak ere egon ziren; hala, Anton Azpiatzuk interesa zuten guztiei txokolate zuria edo beltza egiteko prozesua azaldu zien... "Gainera, Leintz Gatzagarentzat propio sor-

tutako txokolatea ere ekarri dugu, gatza duen txokolatea". Baina Azpiatzuk esan moduan, "gatza beti dago presente jaki honetan". Gozotasunaren eta gaztasunaren arteko oreka bilatzea, hortxe gakoa, oñatiarraren berbetan.

Gatz dastaketa ere egin zuten, Katia Hueso Gatzaren Ondare eta Paisaiaren Institutuko kideak gidatuta eta urte zuriaren gako batzuk azaldu zituen. Bertako gatza, zein Frantzia edo Espainiako hainbat tokitako ere bazegoen probatzeko.

Lehenengo topaketa arrakastatsua

Lehenengo aldiz antolatu dituzte barnealdeko gatzagen topaketak Leintz Gatzagan eta balorazio positiboa egin du Eugenio Otxoa alkateak: "Daukaguna identifikatu eta nondik gatozen erakustea bilatzen genuen eta lortu dugula uste dut". Hala, egubakoitzean besteak beste, Añanako, Pozako, Artetako, eta Leintz Gatzaga bertako gatzagetakordez kariak bildu eta esperientziak trukatu zituzten, besteen artean, gatzagak biziberritzeko aurrera eramandako ekintza ezberdinen berri emanez.



Egubakoitzeko une bat. | TXOMIN MADINA



Leintz Gatzagarako Oñatin egin duten txokolatea. | Z.V.D.M.



Gatz dastaketa egin zuten zapatuan. | Z.V.D.M.



OÑATI

IMANOL SORIANO

Gipsy-afro-folk doinuez blai

Arrakastatsua izan zen egubakoitzean Hegoafrikako Touchwood taldeak Oñatiko San Anton plazan eskainitako emanaldia. Bertaratu zirenek gustura asko entzun zituzten gipsy-afro-folk estiloko doinuek. Freskotasan kontuengatik-edo, baina emanaldi amaieran ikus-entzule ugari erosi zuten talde afrikarraren diskoa; 81 izan ziren guztira. "Benetan pozik gaude Oñatik egin digun harrerarekin".



ARAMAIO

IMANOL SORIANO

Ahots pribilegiatuak Aramaion

San Martin elizan goi mailako ahotsekin gozatu zuten egubakoitz arratsaldean. Marta Izagirrek eta Eduardo Arzamendik pianoa jo zuten bitartean, bakarlari ezberdinak irten ziren aramaioarren aurrera. Besteen artean, hurrengo zarzuelako abestietako batzuk kantatu zituzten. Bertaratutakoek gozatu zutela argi geratu zen, amaieran zutitu eta txalo zaparradekin agurtu baitzituzten musikari eta kantariak.



ARETXABALETA

Z.V.D.M.

Itzali da Portasolgo jaien garra

Denetarik izan dute Portasolgo jaiek aurten: egitarau oparoa, eguzkia, trumoi eta tximistak... Eta giro ederra. Hala, bertako bizilagunek -eta kanpotik bertaratutakoek!- asteburu polita igaro dute; musean eta xakean neurtu dira adin ezberdinetako lagunak, paella lehiaketa egin dute beste batzuek eta musika estilo ezberdinak entzun dituzte askok.

Sergio Gonzalez | Argazkilaria

"Neskaren begiradak berreskuratuko ez duen xalotasuna islatzen du"

Picglaze Photo Prize nazioarteko sariketan hartu du parte argazkilaria arrasatearrak

NAIARA URIARTE / J.B. | ARRASATE

Sergio Gonzalez arrasatearrak Picglaze Photo Prize nazioarteko lehiaketan parte hartu du. Aurkeztu beharreko argazkiak hunkigarritasuna eta sentsazioak transmititu behar zituen. Hala, Indiako Jaipur herrialdeko neska baten erretratua aurkeztu du Gonzalezek: *Lapur-tutako xalotasuna*.

Zer erakusten du argazkiak?

Argazkiak Hirugarren Munduko haurren bizimodu gordina transmititzen du. Neskaren begiradak ikuslea hunkitzen du eta askotariko sentsazioak eragiten ditu. 10 urterekin darman bizimodua senti daiteke, eskean dabilela. Haurtzaro goxorik ez duela bizi izan erakusten du argazkiak.

Eta zergatik izenburu hori?

Neskatilari lapurtu dioten xalotasuna erakusten duelako. Ez du haurtzarorik ezta jolasteko astirik izan, ez da eskolara joan... Egunerokoari eutsi behar dio: kalera irten eta eguneko ogia irabazi. Makina bat trikimailu erabiliko du turistek euroak lortzeko. Turistok, oster, xalotasuna lapurtzen diogu limosna edo beste edozer ematerakoan. Haren begirada mesfidatiak islatzen du ez duela berreskuratuko lapurtu dioten xalotasuna.

Nola izan zenuen sariketaren berri?

Facebooken. Parte hartzeko baldintzak irakurri nituenean argazki horretaz akordatu nintzen. Orain arte ez dut halako lehiaketetan parte hartu.



Sergio Gonzalez eta Lapurtutako xalotasuna argazkia. | SERGIO GONZALEZ



Eguraldia lagun, hurrek izugarri gozatu zuten Jokin Zaitegi plazan egindako apar festarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

Apar festa udaleku irekiei amaiera borobila emateko

Eguraldia "izugarri" lagundu duenez, "oso ondo" joan dira aurtengoak; 234 hurrek hartu dute parte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Egubakoitzean amaitu ziren udaleku irekiak, Jokin Zaitegi plazan egindako apar festarekin. Mirari Arando Txatxilipurdiko Haur Saileko arduradunak hurrek aparrarekin gozaten zuten bitartean egin zigun aurtengo balorazioa: "Oso ondo joan dira, *chapeau*. Eguraldia izugarri lagundu digu, eta horri esker uraren egunak edota igerilekuetara egindako irteera guztiak egin ahal izan ditugu. Gainera, kalean ibili gara denbora guztian, ez dugu eraikin bat bera ere zapaldu; oso pozik gaude horrekin".

Ekintzei dagokienez, Haur Hezkuntzako hurrendako -2 eta 6 urte artekoak- Txiki Festa eta

Uraren Eguna izaten dira aipagarrienak. Lehen Hezkuntzako hurrek -6 eta 10 urte artekoak-, berriz, irteeraren bat egiten dute gaua aterpetxeren baten igarotzeko. Horrez gain, Debara, Usakora, Landara eta Musakolako igerilekuetara joan dira aurtun. Noski, dagoeneko klasiko bihurtu den Sanferminetako entzierroa ere egin zuten; istripuren izan arren, dena ondo joan zen.

Iaz abiatutako Berramesten proiektuarekin jarraitu dute aurtun, umeen autonomia bultzatzea helburu: "Nagusienekin egiten dugu. Lehen astean hezitzaileek ekintzak nahiko zehaztuta eraman zituzten baina taldea ezagutzen joateaz bat egitaraua guztien artean

antolatzen dute". Gurasoei eskerrak eman gura izan dizkie Arandok, "emandako konfiantzarengatik".

"Maitasuna hartzen diezu"

Hezitzaile batzuekin egin genuen berba eta oporrak hartzeko gogoe-kin egon arren, "pena apur bat" sentitzen dela aitortu ziguten: "Maitasuna hartzen diezu, batzuekin bereziki", esan zigun Julen Otxandiano arrasatearrak.

2 eta 10 urte arteko 234 ume aritu dira aurtun. Horiendako lanean 29 hezitzaile aritu dira guztira: "Hezitzaile bat hamar laguneko, gutxi gorabehera", dio Arandok. Gaineratu duenez, ez da aparteko istripu edo bestelako gertaerarik izan.

NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA



Astelehen apokaliptikoa

Krisia. Oparotasunaren mozkorraldian bizi izan garena onartzen hasiak gara. Deshazkundera omen dator, iraganeko balioak berreskuratzea, humanizazioa, elkartasuna, auzolana, berreskapatzea... ahotan hartu ditugu, baina bizilagunak egin behar lukeen zerbait balitz bezala dihardugu. Kontsumitu dugun droga adiktiboa da oso eta oraindik igandeko ajearekin, botaka ari gara. Abstinentsia sindromea etorriko da gero, eta orduan piztuko zaigu barruko piztia.

Hipokrisia. Egiptoko Tharir plazan emakumeek pairatzen dituzten erasoen errukitzea gara eta Iruñeko Udaletxe pla-

zan emakumeak desinhibitu egiten direla diogu. Gure jendartearen gaitzak estali nahi ditugu besteen desgrazia eta akatsak ahotan hartuta.

Hipnosia. Munduko bazterretan istilu eta matxinadak eztanda egiten duten arren, iruditzen zait gurean, lasaitasun puntu batez begiratzen diogula errealtateari. Tarteka leherketa txikiak gertatzen dira han-hemenka, baina ez gaituzte askorik asaldatzen, gero eta gutxiago esango nuke. Ikusle hutsak bihurtu ote garen zalantzan jarri naiz...

Noraez puntua ikusten diot bizi dugun aroari. Baina lasai, amildu aurretik, amnesia eroriko gara...

Eta esnatzerako, dena hasiko da berriro eta ezer ez da izango berdin.

"Ikusle hutsak bihurtu ote garen zalantzan jarri naiz..."



Harrera egin die Udalak Saharako bi umeri

Oporrak Bakean programaren barruan etorri diren bi haur sahararrei ongi etorria egin zien Udalak joan den egunean. Programa horri esker, uztaile eta abuztuan gure artean igarotzeko aukera ematen zaie 7 eta 12 urte bitarteko hurrei. Aurtun, Naziha Mohamed Rais -2002an jaioa- eta Larusi Abdi Brahim -2001ean jaioa- etorri dira; Inazio Azkarragaurizar alkateak eta Amaia Larrañaga Ongizate zinegotziak opari bana eman zieten.



Apar festak arrakasta handia izan du. | JARDUN

Jardun: "Umeeek ondo pasa dute udalekuetan"

Egubakoitzean Muniben egin zuten koloreen festarekin bukatu dituzte aurtengo udalekuak

O.E. | BERGARA

Uztailaren leian hasi zituzten herriko umeeek Jardunek antolatutako aurtengo udaleku irekiak, eta egubakoitzean bukatu zuten, kolorez betetako mosaiko erraldoi batekin. Irratsaioa, altxorraren bila, herri kirolak, ur jolasak, San Fermin eguna, eskulanak eta gehiago egin dute 283 umek hiru astetan.

Helburua, beteta

Guztira 283 umek hartu dute parte Jardunek gidatu dituen udaleku irekietan: 246k Bergaran, 21ek Angiozarren eta 16k Osintxun. Beraiekin 30 begirale ibili dira. "Programa aberatsak egin ditugu, ekintza ugari eta ezberdinak egin dituzte. Udaleku oso ondo joan dira eta haurrek oso ondo pasa dute. Beraz, helburu nagusia bete

da", adierazi du Jarduneko Nerea Mendizabalek.

Zientzia ikasten

Aurtengo ekintza berritzaile eta arrakastatsuenak apar festa, Oñatiko Natur eskolako irakasleekin Errekalde parkean egindako naturaren eguna eta zientzia tailerrak izan dira, eta arrakasta ona izan dutela jakinarazi du Jardunek.

Esaterako, 140 bat neska-mutikok zientzia gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuten joan den martitzenean. Elhuyarren eskutik hainbat esperimentu egin zituzten Errekalde jauregiko lorategian. Horieta bat izan zen, adibidez, Mentos-ekin eta Coca Cola-rekin urkoheteak egitea. Bikarbonatoarekin eta ozpinarekin, berriz, izotz-lehorra egin zuten.



San Ferminetako entzierroa ere egin dute aurten. | JARDUN



Udalekuetako txikiak, marrazkiak egiten. | JARDUN

Argentinatik Bergarara, arbasoak ezagutzera

Eguenean dantza ikuskizuna egingo dute San Martin plazan, 19:00etan

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Argentinako Necochea herriko euskal etxeko dantza talde batek dantza ikuskizuna eskainiko du datorren egunean, hilak 25, San Martin plazan. 19:00etan hasiko da ikuskizuna.

Arbasoen sorlekura

Duela astebete heldu ziren Necocheako gazteak Euskal Herrira. 21 etorri dira guztira. Beraien birraitona, birramona, aitona, amona ... euskal jatorrikoak dira eta arbasoak ezagutzera etorri dira Euskal Herrira, arbasoen sorlekua ezagutzera. Bide batez, euskaldunekin harremanak izatea ere nahi dute.

Gazte hauek hango Zahar Alai dantza taldeko partaideak ere badira eta hango eta hemengo dantzak egingo dituzten ikuskizuna eskainiko dute egunean

San Martin plazan. Musika ere entzungo da ikuskizunean.

Jardun eta Udala

Gazte hauekiko harremana Aritz Alustizak egin zuen, 2006an eta 2011n Argentinara egindako bidaietan. "Urte hartan, Euskal Herrira etortzeko asmoa zutela esan zidaten. Bere garaian euskaldun dezente joan ziren Argentinara eta esku zabalik hartu zituzten han. Uste dut zorretan gaudela herri horrekin, gaur egun ere esku zabalik hartzen gaituzte-eta", adierazi du Aritz Alustizak.

Eguena arte Andoainen daude gazte hauek, eta uztailaren 25etik abuztuaren 11ra Bergaran egongo dira. Horrela, Jardunekin eta Udalarekin batera antolatatu du Alustizak eguneko dantza ikuskizuna. "Egingo dituzten

euskal dantza asko inguru honetan dantzatzen ez diren piezak dira, eta guretzat ere berria izango da", dio bergararrak.

Bergaran egongo diren egunetarako hainbat plan egin dituzte, adibidez: herria ezagutu, herritarrekin egon, hemengo bizimodua ezagutu eta inguruko herriak bisitatu. Horrez gain, festarako ere aprobetxatuko dutela adierazi du Aritz Alustizak.

Postal lehiaketa

Bestalde, eta Jarduneri lotuta, abian da udako euskarazko II. postal lehiaketa. Edozein pertsonak parte har dezake, nahi beste postal bidaliz. Guztiak, hori bai, jatorrizkoak eta euskaraz izan beharko dute eta irailaren 17a aurretik bidali beharko dira Errotalde jauregira.



Argentinako Necocheako dantza taldeko kideak. | ARITZ ALUSTIZA

'El violin' filma botako dute eguzten gauean gaztetxean

El violin film mexikarra eman dute datorren eguztenean, hilak 24, gaztetxean, 22:30ean. Francisco Vargas zinegile mexikarrak zuzendutako eta idatzitako filma da *El violin*. Musikari eta nekazari izateaz gain, gobernuaren aurka egin gura duen gerrilla bateko kide diren hiru senideren istorioa kontatzen du filmak.

Beste galdera bat proposatu du turismo sailak, lehiaketarako

Bere lorategian Bergarako "zuhaitz bikaina" duen etxea zein den asmatu behar da udaleko Turismo sailaren Ezetz asmatu! lehiaketako aste honetako proban. Eguaztena bitartean eman behar dira erantzunak. Argazkia www.bergaturismo.net helbidean dago. Joan den asteko irabazlea, Leioako Gaizka Garamendi izan da.

Eraikinek pasa beharreko azterketa berbagai, bihar

O.E. | BERGARA

Udal ordezkariak beste bilera bat egingo dute Eraikinen Ikuskapen Tekniko derrigorrezkoa egin behar duten ereikinetako presidentekin. Martitzenean, bihar, izango da bilera hori, 19:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Eusko Jaurlaritzak joan den urtean atera zuen dekretuaren arabera, 1901 urtea baino lehen egin ziren eraikinak 2013a bukatu aurretik pasa behar dute ikuskapen teknikoa. Hori egiteko, pertsonal aditua kontratatu beharko dute eraikin horietako bizilagunek. 1901etik 1940ra bitarteko eraikinek 2014an egin beharko dute ikuskapen hori, eta 1940tik aurrerakoak, 2015ean. Horren aurrean, eta bizilagunei ahalik eta informazio gehien ematearen alde, bilerak egin dituzte udaletxean. Martitzean egingo dute hirugarrena eta azkena. Udaleko eta Suradesako ordezkariak egongo dira informazioa ematen.

'Bixkai' preso Soto Del Realera eraman dute

M.B. | BERGARA

Iñaki Arietaleanizbeaskoa Telleria *Bixkai*, egunean estraditatu zuten Espainiara Frantziaren zigorra bete ostean, Bergarako Herrirak jakinarazi duenez. Madrilgo Audentzia Nazionalaren esku gelditu zen preso bergararra, epaileak bere gainean erabakitzeke zain. Egubakoitzean Soto del Realeko (Madril) espetxera eraman zuten.

Ekainaren 17an izan zuen epaiketa Parisen *Bixkai*-k, eta han ebatzi zuen epaileak Frantziarekiko zigorra beteta duela dagoeneko. Bergarako Herrirak orduan jakinarazi zuenez, 20 bat egunen barruan zen burutzekoa estradizioa Espainiara, eta esandako moduan, egunean gauzatu zen. Instantzia horrek behin-behineko espetxealdia agindu du, Espainiako justiziaren epaiketa izan arte.

Abuztu erdialderako, skate-gunea erabilgarri

Hilaren 15ean hasi zituzten lanak eta lauzpabost astean bukatuko dituzte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko skate-gunea egokitzeko lanak asteen hasi dituzte. Zut-Skatparks SL enpresak egingo ditu lanak. Egun batzuk atzeratu da lanen hasiera, enpresa hori Frantzia egon delako skate-gune bat antolatzen. Bada, Udalak zehaztutako epeak betetzen bada, eta eguraldiak laguntzen badu –euririk ez egiteko komeni da–, abuztu erdialderako prest egongo da gunea. LR&C Arquitectos SL enpresak idatziko proiektuaren arabera, lauzpabost aste beharko dituzte lanak egiteko. 49.905 euroko aurrekontua dute skate parkea egiteko lanek.

Ibarran egokituko dute gunea. Enpresagintza fakultatearen eta Artxiboaren artean dagoen zelai baten, hain justu ere.

'L' forma izango du

Ibarran egokituko duten guneak L forma izango du (ikus ondoko irudia). Alderik luzeena Ibarratik pasatzen den bidegorriarekin paralelo egongo da (aparkaleku aldera emango du). Guztira, 142 metro koadroko azalera izango du eta hormigoia erabiliko dute. Gainera, 1,20 metroko sakonera izango du.


Gune horretan gustura ibiliko dira skate-zaleak eta baita patinatzaileak ere. Akrobaziak eta saltoak egiteko leku paregabea izango dute: herriaren sarreran eta aparkalekua gertu dutela. Orain dela urte batzuk herriaren egondako skate-gunea egon zen leku berean egingo dute.

Aspaldiko eskaera

Oñatiko skate-gunea egiteko eskaera aspaldikoa da. Bada skatea gustuko duen talde bat. Garai baten, Ibarra futbol zelaia existitzen zenean, han zegoen skate-gunea.



Lurra mugitzen hasi dira dagoeneko. | MIREIA BIKUÑA



Irudiko itxura izango du skate-guneak. | ARATZ LOSADA

Enpresagintza fakultatea egiteko inguru guztia berrantolatu egin zuten, eta skate-zaleak leku barik geratu ziren. Euren kirola egiteko asmoz, Debagoieneko beste herri batzuetara joan izan dira; besteak beste, Bergarako Labegaraietan dagoen skate-gunera.

Ibarrako gunea desagertu zenetik, hainbat eskaera egin dizkiote Udalarari. Urte askoan eskatu dute

skate-gunea. Behar horren jakitun, Larrañako futbol zelaia egokitzeko egindako lehen proiektuan, skate-gunea han ipintzea aurreikusitua zen. Bada, hainbat aldaketaren ostean, San Lorentzon futbol zelaia bakarrik egokitu dute.

Baina Udalak patin eta patineteekin ibiltzen diren herritarrendako gunea berriro Ibarrara eramatea erabaki zuen.

Etxean su detektagailuak ipintzeko kanpaina abiarazi du Udalak

80 urtetik gorakoen edo mendekotasuna duten gazteagoen etxean jar daitezke

M.B. | OÑATI

Etxean sua dagoela antzematen duten aparailuak ipintzeko kanpaina abiarazi du Udalak. Lehena 2010ean egin zuten, eta, orduan, 183 etxebizitzatan 222 detektagailu ipini zituzten. Iaz beste deialdi bat egin zuten, eta hamar etxetan jarri zituzten. Oraingo honetan, interesatuek urriaren 31ra arte dute eskaera egiteko: Bidebarrietako Gizarte Zerbitzuen bulegoan edo 943 03 77 00 telefonoan, hain zuzen ere.

Gizarte Ongizate batzordean

Kanpaina hori 80 urtetik gorako herritarrendako da, bakarrik edo bikotekidearekin bizi direnendako. Gazteagoak direnek

ere eska dezakete, baina mendekotasunen bat izan edo bakar-dade edo arrisku egoeran badaude. Eskaera guztiak Udaleko Gizarte Ongizate batzordeak aztertu eta baloratuko ditu.

Udalaren kontura

Eskaera egiten duten herritarrek instalazioa egingo dion teknikariaren bisita izango dute. Hark sua sortzeko guneak identifikatu eta etxe bakoitzean zenbat aparailu ipini behar diren zehaztuko du. Gainera, sua prebenitzeko aholkuak eta gomendioak emango dizkiete etxeetako ugazabei.

Aparailuak jartzeko kostua eta horien mantentze-lanak Udalaren kontura izango dira.

Abuztuko udako kirol kanpainen lekua dago

Bi txanda egingo dituzte: abuztuaren 1etik 14ra eta 20tik 30era egingo dituzte, kiroldegian

M.B. | OÑATI

Ekainaren 24an hasitako udako kirol kanpainak erantzun zabalak izan du herritarren artean. Ia 800 neska-mutikok dihardute egun hartatik hona Zubikoan: aukeratutako kirolaren arabera, txanda bakarrean edo bi txandatan.

Bada, ekaineko eta uztaileko txandez gain, abuztuaren ere bi egingo dituzte. Herriaren gertatzen direnei, kirola egiteko

aukera eman nahi diete. Hori horrela, bi txanda egingo dituzte: abuztuaren 1etik 14ra eta 20tik 30era arte. Oraindik lekua dago. Beraz, interesatuek kiroldegian bertan eman beharko dute izena.

Goizez bakarrik

Tenisa, mini-tenisa, igeriketa eta ur-jolasak dira abuztuaren egongo dira eskaintzak. Guztiak goizez egingo dituzte.

Lapurretak prebenitzeko kartelak Usakon

Usakcko bi sarreratan ipini ditu Udalak lapurretak prebenitzeko kartelak: Santipillau baserri aldetik eta Usako baserriaren sarreratik. Horietan eskatzen da baliozko gauzak kontrolpean izatea eta bizikletak lotuta uztea. Aurten ez da aparteko lapurreta kopururik egon. Bada, prebentzio gisa jarri dituzte kartelak.



MIREIA BIKUÑA

Abuztuaren 8an eta 22an egongo da garbigune ibiltaria, etxeko hondakin arriskutsuak batzeko

Debagoieneko Mankomunitatearen garbigune ibiltariak ez du etenik izango abuztuaren 8an eta 22an egongo da Foruen plazan. Biltoki ezberdinak dituen edukiontzian etxeko hondakin arriskutsuak batuko dituzte; besteak beste, sukaldeko olioak, bateriak, pinturak, erradiografiak, garbiketarako produktuak eta fluoresenteak. Gainerako egunetan, berriz, Urrutxuko garbigunea erabil daiteke. Egunero dago zabalik, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara.

Ernai gazte taldeak udaleku ibiltaria egingo du gaurtik eguaztenera arte Oñatiko inguruetan

Oñatiko Ernai gazte taldeak udaleku ibiltaria egingo du gaurtik eguaztenera arte, 16 urtetik gorako gazteendako. Elkarren arteko hartu-emanak sendotu, Oñatiko inguruak ezagutu, bizikidetzaren sustatu eta askotariko gaien buruzko gogoetak egitea dira udalekuaren helburu nagusiak. Oñatiko mendietan egingo dute udalekua: Urbian, Kataberan eta Olabarrietan egingo dute. Goizetan mendia ibilaldiak egingo dituzte eta arratsaldean, askotariko ekintzak; besteak beste, jolasak, eztabaidak eta bideo emanaldiak.

ESKORIATZA

Txarteldun edukiontzi marroia probatuko dute

- ▶ Hondakinen Mahaiak proba pilotua jarriko du abian
- ▶ Proba horren emaitzetatik eredurik onena bilatuko da

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzan hiri hondakinen sistemaren bueltan adostasunera heldu da Hondakinen Mahaian bildu den gehiengo; hain justu, Bildu, Ezker Anitza-IU eta Eskoriatza Zero Zabor. EAJk ez zuen babestu, eta PSE-EEko ordezkaria ez zen batzarrean izan.

Prentsa oharrean jakinarazi dutenez, hondakinen bilketa sis-

tema berriaren ezarpena mailakatua izango da. Horretarako, proba pilotua jarriko da martxan, eta "horretatik abiatuz eta datu errealean oinarrituta", Eskoriatzarako eredurik "onena" bilatuko da. Sistema dagoenetan uztea edo zuzenketak egitea erabakiko dute orduan. Horren harira, oharrak honakoa dio: "Behin sistema balidatuta, herri guztira hedatu-

ko da sistema hau. Sistemak, kontenedore marroia barnehartzen du, komunitarioa izango dena eta sarrera kontrolerako txartelak erabiliko dira".

Kezkei erantzunez

Oharrek dio adostutako proposamenak herritarrek helarazi dizkieten kezkei "guztiz erantzuten" diela: "Organikoarentzat ez

da egutegi eta ordutegirik izango, eta ondorioz, usainarekin, arrainarekin, e.a. dauden beldurrak ez dira arazo izango frogatzerako garaian. Intimitatea eta estetika ere zaintzen dira, ekonomikoki bideragarria da eta mankomunitateko gainontzeko zerbitzuekin koordinatua dago".

Aldi berean, idatziak nabarmentzen du adostutako sistema aurreko bileran sinatutako akordioaren helburuak lortzera bideratuta dagoela: %70eko bilketa selektibo tasa lortzera, hondakin organikoa derrigortasunarekin bereiztera eta errefusari ateak ixtera.

Irailean xehetasun gehiago

Gaineratzen du irailean sistemari buruzko xehetasun gehiago eman go dituela eta parte-hartze prozesuak abian jarriko dituela, bizilagunei hobeto azaldu eta ekarpenak jasotze aldera.

Uztailen 11n, sistema berriak izan beharreko helburu eta ezauzgarrien gaineko akordioa sinatu zuen Hondakinen Mahaiko gehiengoak: hain justu, Bildu, Ezker Anitza-IU, PSE-EE eta Eskoriatza Zero Zabor taldeek. EAJ eta Eskoriatza Garbia plataformak ez zuten akordioa sinatu, mahaiko partaide baziren ere. Plataformak, gainera, iragarri zuen mahaia uzten zuela. Hiri hondakinen arazoari irtenbidea emateko asmoz eratu zuten esandako mahaia, eta helburu eta ezauzgarrietan adostasunera heldu. Orain sisteman jarri dira ados.

Bestalde, Hondakinen Mahaia bultzatutako kanpaina etzi, eguaztena, amaituko da. Ibarraundin museoan dagoen erakusketaz gain, bihar hitzaldia emango dute Mankomunitateko teknikariek toki berean: 19:30ean, euskaraz; eta 20:00etan, gazteleraz.

ARETXABALETA-ESKORIATZA

Irailaren 22an izendatuko dute Andoni Illaramendi Aretxabaletako abade berria

Eskoriatzan, ostera, urriaren 6an egingo den elizkizunean hartuko du kargua

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aretxabaletak eta Eskoriatzak abade berria izango dute udazkenarekin batera. Andoni Illaramendi mutrikuarrak hartuko du ardura hori. Aretxabaletan, irailaren 22an egingo den elizkizunean hartuko du kargua; eta Eskoriatzan, ostera, urriaren 6tik izendatuko dute herriko abade berria.

Ordenatu zenetik, misio lanetan ibili da Andoni Illaramendi; hain justu, Afrikan eman ditu urte gehienak. Orain dela 15 urte inguru misioetara abiatu zen Euskal misiolari taldearen kide bezala; hasiera batean, lau urterako joan zen Angolara, baina, azkenean, denera, 15 urte egin ditu han.

Azken urteak Gazengan dagoen Bihotz Sakratuaren parrokiaren izan da, eta han bultzatutako hezkuntza eta osasun arloko proiektuetan lagundu izan du misiolari mutrikuarrak. Aurten, baina, herrialdean izandako istiluek parrokiaren itxiera eragin dute, eta hango misioa bertan behar utzi behar izan dute.



Andoni Illaramendi Urkiolan egindako misiolarien topaketan. | BILBOKO ELIZBARRUTIA

Egaña, Elortza eta Letona

Mutrikuarrak Jabier Egaña ordezkatuko du Eskoriatzan; erretiroa hartuko du horrek. Eta Aretxabaletan, ostera, Angel Elortza ren lekukoa hartuko du. Oñatiarrak, dena dela, ez du Aretxabaletako parrokiara utziko, baina Illaramendi gazteagoa denez, kargua berari lagatzea eta laguntzaile moduan jardutea erabaki du. 2003. urtetik Leintz Pastoral

Barrutian lanean dihardun Pablo Letona abadearen laguntza izango dute.

Asier Illaramendiren osaba

Bestalde, bitxikeri moduan aipatu beharra dago Aretxabaleta eta Eskoriatzako abade berria Real Madril futbol taldeak fitxatu berri duen Asier Illaramendi futbolari ezagunaren osaba ere badela.

ESKORIATZA

Irailaren 19tik 22ra egingo da zaharren egoitza laguntzea helburu duen garagardo festa

Egoitzakoek hartu dute egitaraua gertatzeko ardura, eta iraila hasieran batzarra egingo da

M.B. | ESKORIATZA

Joan den astean Eskoriatzan egindako batzarrean aurten ere garagardo festa egitea erabaki zuten, eta jaialdia egingo diren egunak ere zehaztu zituzten nertan: irailaren 19tik 22ra izango da. Helburua ere joan den urteko bera da: hain justu, herriko Mesedeetako Amaren egoitza diruz laguntzea. Horren harira,

honakoa esan digu Arantxa Unzueta udal teknikariak: "Egoitzan behar asko daude, obrak egin behar dira; horrez gain, eskoriatzarrendako oso gertuko da egoitza, eta laguntzeko gertu daude".

Egoitzakoak arduratuko dira orain prestaketa lanez, eta irailaren lehen astean batzarra deituko dute.



Joan den urtean egindako garagardo festa. | GOIENA

TXALOAK ETA TXISTUAK

ARETXABALETA

Zaindu dezagun ingurunea



Aretxabaletako Kurtzebarri eskola atzealdeko parkeko zuhaitzei azala moztzen dabilta. Lorategien mantenuaz arduratzen den Makai enpresako Manolo Hernandezek ohartarazi du zuhaitz horiek sikatzten direla, eta natura zaintzeko deia egin du.



M.B.



M.B.



Konposta egiten ikasteko lehen bileran azalpen orokorrak eman zituzten. Asmoa da irailean beste bat egitea. | JON TOÑA

ARAMAIO

Konposta etxean egiteko tailerra "oso interesgarria" izan zela uste du Udalak

Udalan jasotako eskaerei erantzuna eman eta gaiaren gaineko zalantzak argitzeko hitzaldia izan zen; irailean beste saio bat egiteko asmoa dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Udalak eta Zuiako Tokiko Agenda 21 egitasmoak norberak konposta egiteko aukera eskaini gura die aramaiorrei. Horretarako tailerra egin zuten joan den eguaztenean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Lehen saio horren helburua hirukoitza izan zen, Jon Toña eskualdeko Tokiko Agenda 21eko teknikariaren arabera: "Batetik, udaletxean jaso ditugun eskaera batzuei erantzun bat ematea gura genuen. Bestetik, herritarrek konposta egitearen gainean zituzten zalantzak argitzea ere izan zen helburua eta, azkenik, Udalak herritarren interesa neurtu gura du proiektua bultzatzea merezi duen hausnartzeko".

Lehen bilerarekin "oso pozik"

Beraz, lehen bilera hori abiapuntu bat izan da. Lehen saioa izateko eta jende gutxi agertu arren, hamar bat lagun elkartu ziren-antolatzaileak "oso pozik" irten ziren tailerretik: "Oso interesgarria izan zen eta esango nuke

jendea gustura joan zela. Oso balorazio ona egiten dugu, mundiala izan zen". Lastima da jende gutxi agertu izana, baina ez da harritzekoa. Asistentzia eskasa honela azaldu digu Toñak: "Jende gutxi agertu izana gure errua bada neurri baten. Uztaileko arratsalde eguzkitsu baten halako hitzaldi batera baino jendeak nahiago izaten du igerilekura edo beste lekuren batera joatea".

Azalpen orokorrak

Iruñeko Vernican enpresako teknikari batek eman zuen tailerra eta lehen saioa zenez, azal-

pen orokorrak eman zituen. Konposta etxean bertan egiteko prozesua azaldu zuen, "modu simple" baten: "Zer bota daitekeen eta zer ez, proportzioak, nola ureztatu behar den, aireztapenaren garrantzia, jarraitu beharreko urratsak... Hainbat kontzeptu azaldu zituen", adierazi digu Zuiako teknikariak.

Irailean beste saio bat

Irailean beste saio bat egitea da asmoa. Hasteko, jende gehiagorengana heldu gura dute, eta herritarrei etxean bertan konposta egiteko aukera dutela jakinarazi. Era berean, iraileko hitzaldi hori Aramaioko errealitateara egokitu gura dute. Adibide bat jartzearen, Ibarren bertan konposta egiteko guneak jartzearen gainean eztabaidatuko lukete iraileko bileran.

Horren aurretik, baina, aramaiorren interesa neurtu gura du Udalak. Izan ere, proiektu horretan ere herritarren parte-hartzea eta iritzia ezinbestekotzat jotzen dute.

ESANAK

"Interesgarria izan zen tailerra, jendea gustura joan zen"

JON TOÑA | TOKIKO AGENDA 21

ANTZUOLA

Antzuola Kirol Elkarteko batzarrak urteko kuota igotzea onartu du

Zuzendaritzako kideak babesleekin elkartuko dira denboraldi berria prestatzen hasi aurretik

LARRAITZ ZEBERIO | ANTZUOLA

Antzuola Kirol Elkarteak (AKE) egindako urteko batzar orokorrean 22 lagun elkartu ziren, eta, hartutako erabakien artean, urteko kuota igotzea nabarmen daiteke. Erabaki horrek aldeko 29 boto eta abstentzio bat jaso zituen batzarraren. Ez zuen inork kontrako botorik eman.

Igoera zenbatekoa izango den galdetuta, ordea, zuzendaritzak denbora eskatu du. "Babesleekin elkartu gura dugu aurretik", adierazi du AKEko presidente Tomas Agirrek.

Mahai gainean izan zuten beste gaietako bat zuzendaritza batzordeko kideen erreleboa izan zen. Agirrek azaldu duenez, pare bat

lagun prest agertu dira ardurak hartzeko, eta poztekoa da, baina ez da nahikoa.

Denboraldi berria prestatzen

Denboraldi polita egin dute Antzuolako taldeek, eta hurrengo prestatzen hasteko ueña ere iritsi da. Talde nagusia Ohorezko Erregional Mailara igo da, eta, jakinarazi dutenez, elkarteak bi futbol talde gehiago izango ditu datorren denboraldian. Agirrek adierazi du abuztua bukatu aurretik hasi beharko dutela federatu fitxak prestatzen. "Lanak ez du etenik", esan du. "Zuzendaritzako kideek datorren astean dugu hurrengo bilera".

ELGETA

Eguenerako egun osoko egitaraua gertatu dute Goimendi auzoan

Urteroko mezarekin hasiko dira Santixauak; ondoren etorriko dira bertsolariak, herri kirolak...

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Festa eguna izango da eguena, hilak 25, Goimendi auzoan. Santixauak ospatuko dituzte 11:00etako mezaren ostean. Urtero moduan, Kezka dantza taldeko kideek soka-dantza egingo dute, 12:00etan, eta ondoren, bertso saioa egingo dute Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

Trikitilariak ere gonbidatu dituzte Goimendira: Jon Ostolazak eta Unai Andonegik giro-tuko dituzte jaiak soinuarekin eta panderoarekin.

Bazkaltzera joan aurretik, umeendako jolasak iragarri ditu jai batzordeak. Ermitaren aurreko aldean egingo dituzte, 13:00etan hasita.

Herri kirolak eta musika

Arratsaldean herri kirolak izango dira nagusi. 18:00etan erakustaldia egingo dute Mikel Larrañaga eta Ugaitz Mugertza aikolariek. Harri-jasotze lanetan, berriz, Urtzi Telleria ariko da. Bolotan egin nahi dutenek ere aukera izango dute, 18:30ean txapelketa jokatu baita auzoko bolatokiak.

Musikarekin agurtuko dituzte Santixau jaiak Goimendi auzoan. 19:00etan azken bertsoak botako dituzte Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendizalek eta ondoren erromeria egingo dute Ostolaza eta Andonegi trikitilariak. Tartean, Goimendin klasikoa den urdaiazpikoaren zozketa egingo dute.



Erromeria, Goimendiko Santixau jaietan. | LZ

LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean esan zieten agur udalekuei, balorazio positiboa eginez

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Dorletako zelai ederrean kanpin dendak muntatu eta egueneko gaua bertan emanez agurtu dituzte Gurelek antolatutako udalekuak. "Gustura ibili ginen; pelikula ikusi, otartekoa afaldu, jolastu... eta gauean txikitxoek etxera joateko eskatu zuten eta sei bat geratu ginen lotan. Oso gustura", kontatu du Iñaki Gabilondok, Gurel elkarteko kideak.

"Aldaketa nabarmena"

Pozik amaitu dituzte, beraz, udalekuak. Eta pozik geratu dira, baita ere, antolatzaileak emaitzarekin. 13 neska-mutikok parte hartzeaz gainera, udalekuon helburua bete egin dute: uztailean gaztetxoei herrian geratzeko moduko aisialdia eskaini, eta gaztetxoek bitartez, herria bera girotu. Beste urte batzuekiko, "aldaketa nabarmena" egon dela dio Gabilondok.



Udalekuekiko neska-mutikoak kanpinetan. | IÑAKI GABILONDO

KIROLA

FUTBOLA

Spat taldeak egin zion beroari aurre ondoen...

- ▶ 200 gazte batu zituen UDAko torneoan zapatuan
- ▶ Aitor Rodriguesi animo mezuak bidali zizkioten

EMAITZA
SPAT
2-0
DOBLE CERO

antolatzaile lanetan ibili zen Zangituk.

Pentsatuko duzue uztaileko lagunarteko torneo batean hala xe joan zela eguna, katxondeoan, baina ez. Berdegunean broma gutxi izan zen, tartean federatutako jokalar asko ikusi genituen, Mondrakoak, UDAkoak... Eta ligan baino seriotasun handiagoaz ibili ziren asko: sarrera gogorak, intentsitatea, faltak egiteko bel-

dur gutxi, eta irabazteko nahia, besteak beste, 600 euro zeudelako jokoan.

Eskerrak finalean euria egin zuen, ordurako nekea jokalariren hanketan pilatzen zebilen-eta. Hala, SPAT taldeko Iker Sanchezen eta Aitor Perezen golei esker [UDAko jokalaririk biak] irabazi zuen SPATek finala, eta Doble Cerok ezin izan zuen uztaileko torneoetan dobleterik egin.

XABI URZELAI | ARETXABALETA

"Afarari on bat egin beharko dugu, eta Portasolgo jaietan buelta bat eman", zioten Spat taldeko ordezkariak zapatu iluntzean, Doble Ceroren kontra Koadrilen Arteko Txapelketako finala irabazi ostean. Parrandarako gogoaz geratzen zitzaien, nahiz eta berdegunean paliza ederra hartu zuten.

Egin zuen beroaz, ondo hidratzeko eguna izan zen: "Berdegunea hirutan ureztatu behar izan dugu, baina hala ere... Eguerdian sekulako beroa egin du, eta jendea ura edan eta edan ibili da. Beno, ura, eta baita beste edateko batzuk ere...", zioen barrez



Rodriguesendako kamiseta. | X.U.

Aitor Rodriguesi animuak

Txapelketako une bereziena 13:00etan bizi ahal izan genuen, atsedean hartzeko geldialdia egin, eta aste barruan Bergarako enpresa batean lan istripua izandako Aitor Rodrigues gogoan izan zutelako. Seguru, Mondrako jokalaririk ondo errekupeartzeko bidean lagun-garri izango dituela irudiok, pankarta handi batekin talde erretratua atera zuten, eta talde guztietako ordezkariak mezuak idatzi zizkioten UDAko elastiko batean. Ondo errekupeatu dadila Arrasateko gaztea.



Goizeko kanporaketa partiduak amaitutakoan, eta atsedean hartu aurretik, talde argazki g...



SPATekoak, eraso jokaldia antolatzen. | IBAI ZANGITU



Partiduetan inork ez zuen oparirik egin nahi. | IBAI ZANGITU



Txapelketa irabazi zuten SPAT taldeko ordezkariak, garaikurrarekin. | XABI URZELAI

22 | ATLETISMOA | Malen Ruiz de Azuak ezin izan zuen Europakoan lehen kanporaketa gainditu



alanta atera zuten, Animo Aitortxu, denok zurekin! lelodun pankartarekin. | XABIER URZELAI

IBAI ZANGITU | ANTOLATZAILEA

"Iaz baino bi talde gehiago izan dira; bero egin du, baina giro ona izan dugu"

Ibai Zangitu (Aretxabaleta, 1986) antolatzaileak pozik azaldu zen txapelketako bigarren edizioak emandakoaz. Lan eskergea izan zuten egunean zehar, baina lantalde ederra izan zuen ondoan, txapelketa behar den moduan irten zedin.

Finalera iritsi direnen taldeen artean, ez da ezustekorik egon.

Ez. Doble Cero Zaldibarko 24 orduak irabaztetik zetorren, eta Spat-ekoak iaz ere finalerdietan izan ziren. Faboritoetako bi ziren.

Gustora geratu zarete?

Bai, aurten 15 talde izan ditugu, eta 200 jokalaririk inguru batu ditugu ibarran, iaz baino bi talde gehiago izan dira. Hala, UDAk urtean zehar egiten dituen hitzordueta-ko bat gehiago da hau, ez du aparatuko helbururik, herri mailan ekarpen txiki bat egin, eta Loramendiko



X.U.

jaiak direla aprobetxatuta, giro apur bat jarri. Baita jendeari futboleko jokatzeko aukera ematea ere.

Polita izan da Aitor Rodriguesek izandako detailea.

Bai. Eguerdian talde argazkia atera dugu haren lagunek egindako pankartarekin, eta UDAko kamisetarekin batean guztietako ordezkariak sinatu dute.

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak




BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com




Renove Plana 2013
Aprobetxa ezazu.



375 €-rainoko dirulaguntzak!



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!



FUTBOLA

Ander Garai: "Igoera lortzea hiru urtetara zehaztutako erronka da, ezin gara zoratu"

Mondrak egindako azken batzar orokorrean izendatu zuten arrasatearra taldeko presidente berria

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Uztailaren 18an Mondrak batzar orokorra egin zuen, eta han hartu zion Jose Luis Ezkurrari lekukoa Ander Garaik, taldeko presidente karguan. Zenbait erronkei egin beharko die.

Garai ez da berria Mondran; azken urteetan bertako lantaldearen parte izan da eta badaki nolako lanak egin behar izaten diren. "Elkar ezagutzen dugu, talde polita da eta lanerako gogorik ez zaigu falta". Gustura dago arrasatearra, beraz. "Bertigo pixka bat ematen duen arren, ez nago bakarrik eta errazagoa izango da".

Diru eta talde kontuak

Taldearen egungo egoeraz egin digu berba Garaik eta klubak azken urteetan pilotutako zorra izan du hizpide: "Ekonomikoki egonkortzen goaz. Bospasei urtetara zorra kitatzea zen asmoa. Gure xedea, orain arte bezala, zero gastu edukitzen jarraitzea izango da".

Lehenengo taldeari buruz berba egitera ere animatu da eta Garaik aditzera eman duenez, igotzea izango dute xede, baina



Ander Garai Gipuzkoako Futbol Federazioak omenaldi gisa emandako plaka jasotzen. | JAGABA DOMINGO

ez epe motzera begira: "Taldeak maila galtzea golpea izan zen. Igotzea da helburua, baina hiru urtetako epe bat finkatu dugu; ez dugu uste-eta xede horrekin zoratu behar garenik".

Gainera, arrasatearrak azaldu duenez, taldea gaztetzea ere bilatuko dute. "Eta beste erronka bat ere ipini diogu gure buruari: etorkizunean Mondrako lehenengo taldea harrobiko jendeaz -egon badago-eta-, bertako jokalariez osatuta egotea, eta aukera egongo balitz, bere osotasunean hala izatea gurako genuke".

Eta emakumeen taldeagatik galdetuta, presidentearen berbetan, "mutilen taldearekin segituko duten filosofia berdina mantendu" gurako luketela gaineratu du Mondrako presidente berriak.

Jokalariez bai, baina entrenatzaileez eta entrenatzaile izateaz ere egin du berba, hezitzaile izatearen garrantzia azpimarratuz: "UDAKoen inizatibaz, irailetik aurrera-edo, titulazioa Arrasaten bertan atera ahal izango dela pentsatzen dugu, eta eskertzekoa da".

Mendeurrena dela eta, eskerrak

Amaitzeko, mendeurrena ere ekarri du gogora futbol taldeko presidentek. Hala, orain arte data berezia ospatzeko prestatketan lagundu duten den-denei eskerrak eman gura izan dizkie zuzendaritzakoen izenari, "baita antolatutako ekimenetan parte hartu duten guztiei ere".

PILOTA

Dorleta Pilota Txapelketa norgehiagoka politen testigu

Txapelketak geldialdia egin zuen Leintz Gatzagan atzo eta finalerdietako sei partidu egin zituzten


Z.V.D.M. | LEINTZ GATZAGA

Nahiz eta zazpi partidu zeuden iragarrita, sei izan ziren Leintz Gatzagako pilotalekuan ikusi zirenak. Dorleta Pilota Txapelketaren finalerdiak jokatu zituzten atzo eta antolatzaileak gustura geratu ziren bai ikuskizunarekin, bai eta ikusle kopuruarekin ere.

Aurre-benjaminetan Larrañaga-Lazpiur bikote bergararrak 22 eta 7 irabazi zion Sarabia-Eraña bikote arrasatearrari. Eta Azkoitiko Etxaniz-Diaz de Cerio bikoteak, Azpeitiko Elozegi-Odrizolaren aurka zazpi tanto soilik egitea erdietsi zuen. Benjaminetan Arribabalaga eta Egigurenek osatuta-

ko taldeak Goenaga-Aztigarragari irabazi zion (22-10). Maila berean, Garitano-Otxandiano arrasatearren eta Goikoetxea-Marrero otxandiarren norgehiagoka bertan behera geratu zen; gaur jokatu dute Olaztin (Nafarroa).

Alebinetan, Alberdik eta Unanuek aise irabazi zioten Galdos eta Mintegi bikoteari (22-9). Diaz de Heredia-Agirre eta Intxausti-Matxin bikoteen arteko lehia izan zen jubeniletan; bigarrenak irabazi zuen, hamaika punturen aldeaz. Eta seniorretan, Rodriguez-Resano bikoteak lau tantogatik irabazi zion Andueza-Zendoia bikoteari.



PILOTA

IMANOL SORIANO

Partidu biziak eta giro beroa

Antzuolako jaien egitarauaren baitan bi partidu ikusgarri jarraitu ahal izan ziren egubakoitzean. Hala, aurrena Apeztejeta eta Rezustak 15 eta 22 galdu zuten Jaka eta Peñagarikanoren aurka. Segidan, Aritz Lasa eta Barriolak osatutako taldeak 22 eta 21 irabazi zion Mendizabal III eta Zubieta bikoteari, lehia estuaren ostean.

PILOTA

Muguruza eta Aldape azpitxapeldunak Zornotza aldean

Bergarako Eneko Muguruza pilotariak eta Andoni Aldapek osatutako bikoteak Bizkaia aldean jokatu dute asteburuan. Hain zuzen ere, Zornotzako Txapelketa izan zuten eszenatoki eta bertan ez zuten irabazterik lortu; dena dela, azpitxapeldun geratu ziren, arerioen aurka 22 eta 14 galdu ondoren.

TXIRRINDULARITZA

Tourreko porrako sari banaketa egingo du gaur Lokatzak

Lokatzakoek gaur banatuko dituzte Tourraren harira antolatutako porraren sariak, Domingo Iralan, 20:00etatik aurrera. Aurreneko hiru sailkatuek diru saria jasoko dute; 84. postuan sailkatutakoak Zabala jatetxearen partez jasoko du saria. Eta porra orria ekartzen dutenen artean otzar bat zozkatuko dute.



Leintz Gatzagan jokatu zituzten atzo Dorleta Pilota Txapelketako finalerdiak. | JOSETXO ARANTZABAL



Beñat Barberena, denboraldian zehar Iraurgin jokatuako partiduko une batean. | BEÑAT BARBERENA

SASKIBALOIA

"Etxeko pibotak ondo baloratuta gaude; oraingoz lasai nago"

- ▶ Beñat Barberenak ez daki irailean non jokatu duen, Iraurgik nekez jarraituko du-eta
- ▶ Arrasateko saskibaloia jokalariek urte polita egin du zilarrezko LEB mailan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Lasai, oportetan harrapatu dugu etorkizun hurbilak nora eramango duen jakin barik jarraitzen duen Beñat Barberena (Arrasate, 1989). Kanarrietan dago egunotan, baina poltsikoko telefonoa piztuta, badaezpada, bere kirol ordezkariak nobedaderen bat kontatzeko zain: "Ez dut uste egun hauetan deirik jasoko dudarik, uztaile amaierara arte ez delako merkaturatua mugituko", diosku. Eta hondartza eder batean etzanda imajinatu dugu, eguzkia hartzen, aurtengo denboraldi onaren ostean gorputzari atseden ematen. Hala ere dagoela konfirmatuta [barre egin du], saskibaloiaz, krisiaz, eta etorkizunaz egin dugu berba, besteak beste.

Urte ona, ez iazkoa moduan

Beñat Barberenak pozik jardun du aurtengo denboraldi Iraurgi taldean (Zilarrezko LEB maila). Iazko urteaz alderatuta, askoz ere minutu gehiago egin ditu kantxan, eta protagonista izan da: "Ezin naiz kexatu, aurrean amerikar bat nuen [Lance Kearsse] eta hala ere minutu asko jokatu ditut. Azken batean, talde batek halako jokalaririk bat ekartzen duenean minutuak emateko da,

baina nik ere jokatzeko aukera izan dut, eta gustura geratu naiz denboraldiaz, iaz oso gutxi jokatu nuen-eta". [Gero itzuliko gara jokalaririk amerikarren kasura, zoratzekoa da-eta].

Hain zuzen, iazko denboraldia amaituta Barberenak beste talde batzuen eskaintza izan zuen. Zalantzan egon zen Azpeitian jarraitu ala ez, baina egindako

apustua ondo irten zitzaion, denboraldi gozagarria izan duelako. Orain, berriz, egoera bestelakoa da, taldea bera dagoelako egoera larrian, ekonomikoki itota: "Oraindik ez da %100 segurua, baina zail ikusten dut Iraurgik kategorian jarraitzea. Ni gustura geratuko nintzateke taldean, baina zail ikusten dut". Eta Azpeitiko taldearen kasua ez da bakarra,

Gipuzkoako saskibaloia talde nagusiak egoera larrian daudelako: "Pena handia ematen dit, bai, baina ulergarria ere bada. Diputazioak diru-laguntzak kendu ditu, eta enpresak langileak kaleratzen dabiltzan honetan, ez dute dirua saskibaloira edo beste kirol batzuetara bideratuko. Hauxe da momentuan dugun egoera, eta honekin egin behar aurrera".

Ikasketak amaitzea buruan

Heziketa Fisikoko Zientziak ikasten dabil Arrasatekoa, Gasteizen: "Azken urtea geratzen zait, eta orain momentuan horrek du lehen-tasuna. Datorren urtean, berriz, inongo lotura barik ez nuke baztertuko saskibaloian jokatzera kanpora joatea. Eta saskibaloian jokatzeko master edo bestelako ikasketak batekin bateratu ahalko banu, ederra izango litzateke".

Oraingoz, baina, lasai dago: "Hemengo pibotak nahiko ondo baloratuta gaude, eta lasai nago. Ez bazait ezer irtetzen, badakit Arrasaten sasoiari mantenduko naizela urtebetez, entrenatzaile ona dute-eta".

Zortea, kolpe batean

Barberenak gustura hartuko luke haren taldekide Lance Kearsse jokalariek izandako zorte kolpea: "AEBtara itzuli da, baina saskibaloian jokatu beharrean futbol amerikarrean hasi da NFL ligan. Orain gutxi izan naiz harekin, eta bizitza ze erola izan daitekeen aipatzen zidan". Pentsa, Iraurgin saskibaloian jokatzeko ibiltzetik, Jacksonville Jaguars taldera egin du salto, urtean 800.000 euro irabaztera: "Animalia hutsa zen kantxan".

Tunisian, Euskadikoaz

Barberenak Tunisiako selekzioaren kontra jokatu zuen duela pare bat aste. Egonaldi motza egin zuten Afrikan, Euskadiko selekzioaz: "Gauza ederra da selekzioaz jokatzeko, besteak beste, bidaiatzeko aukera izaten dugulako. baita Pablo Laso moduko entrenatzaile baten ondoan lan egiteko ere. Argentinan izan ginen iaz, orain Tunisian izan gara. Txapelketak prestatzen dabiltzan selekzioek gonbidatuta jokatzeko dugu".



Euskadiko selekzioaren jokalaririk finkoetako bat bilakatu da Arrasatekoa. | BB

ATLETISMOA

Espainiako Txapelketa Absolutua Ruiz de Azuaren erronka, Europakoa atzean utzita

Egubakoitzean Italian jokatuako Europakoan ez zuen aurrera egitea lortu

ZURIÑE V.D.M. XJ ARRASATE

Malen Ruiz de Azuarentzako aurreneko txapelketa europarra izan zen egubakoitzean Italiako Rietin jokatuakoa. Modu horretan, Arrasatekoak probatu du estatu mailaz haratagoko lehiaketaren gogortasuna. Bi garaieratako oztopoak gaindituta, ezin izan zuen hirugarrenarekin, eta lehiaketaz kanpo geratu zen.

Hirugarrenean kalera

Esan bezala, Ruiz de Azuak bi garaiera saltatzea lortu zuen Rietiko txapelketan. Gainditutako aurreneko oztopoa 3,65 metrokoa izan zen eta ondoren, 3,80 metro saltatu zituen pertika jauzilari gazteak.

Hirugarren proban 3,90 metro-tako oztopoari egin behar izan zion aurre, baina ez zuen marka hori gainditzerik lortu. Hori horrela, bertan amaitu zen atleta gaztearen aurreneko Europako esperientzia.

Italiatik Madrilera

"Ez da lehiaketa ona izan baina aurrera egin behar da". Hala azaldu zuen Twitter bitartez arrasatearrak, eta horrela jokatuko du. Hain zuzen ere, gaur



Ruiz de Azua, aurreko astean Mojategin, Italiara bidaiatu aurretik. | A.T.

itzuliko da Italia aldetik Ruiz de Azua eta egueanean, berriz, Madril aldera bidaiatu beharko du, bertan jokatuko baita Espainiako Txapelketa Absolutua.

Denboraldiko azken lehiaketa izango da Arrasatekoarentzat;

"marka ona egiteko beste aukera bat izango dugu han", adierazi du. Ostean, merezitako atsedena hartzeko abagunea edukiko du, "abuztuan erabateko relaxa nahi dut atsedean hartu eta lasai ibili".



SASKIBALOIA

Ointxe-koak Zarauzko torneoan

Arrasateko Ointxe saskibalo elkarteko 20 neska-mutikok Zarauzko hiru saskibalo torneoan hartu zuten zapatuan. Fernando Romay jokalaria ohia ere bertan izan zen -argazkian- gaztetxoekin. Torneoko irabazleak Arrasateko neskak izan ziren 6 partidutik 6 irabazita. Finalean Bilbao Basket taldeko neskak arerio izanda.

MENDIA

Paiju Peak-eko igoera bertan behera utzi dute eguraldi txarrarengatik

Zortzi egunez saiatu ostean, Alberto Inurrategik, Juan Vallejo eta Mikel Zabazak bertan behera utzi dute Paiju Peak-eko igoera elur-ekaitzen ondorioz. Tarte labur bat gelditzen zitzaien aurretik, baina elikagai gabe geratzen hasi eta ondorioz, bertan behera uztea erabaki zuten, kanpamendu basera itzuliz.

ARETO FUTBOLA

Areto futbola probatzeko aukera bihar Aretxabaletan

Bihar, areto futboleko jokatu gura dutenek aukera izango dute Aretxabaletan. UDATik aditzera eman dutenez, 18 urtetik gorako mutilen taldea osatzea da euren helburua. Hori horrela, interesa duten guztiei egin diete dei Ibarra kiroldegian 18:45ean egingo den entrenamendu irekian parte hartu dezaten.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



> DACIA SANDERO

- 2012
- Gasolina
- 3.560 Km
- Grisa



8.850 €



RENAULT AUTOBERRI

San Andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

• Renault Kangoo	10.800 €
2011 Diesela 19.340 Km Txuria	
• Renault Kangoo Furgoa	7.500 €
2011 Diesela 107.000 Km Txuria	
• Renault Trafic Furgoa	8.950 €
2008 Diesela 91.000 Km Txuria	
• Renault Master Furgoa	8.500 €
2008 Diesela 137.855 Km Txuria	
• Renault Megane Sport Tourer	14.850 €
2011 Diesela 11.037 Km Beige	
• Renault Clio	9.250 €
2010 Diesela 23.856 Km Urdina	
• Renault Clio Grand Tour	11.850 €
2012 Diesela 17.155 Km grisa	
• Renault Twingo	8.450 €
2011 Diesela 9.654 Km Beltza	



28.500 €

> Citroën | C4 Aircross 1.8 HDI Exclusive 2WD 150

2012 | Diesela | 1.000 Km | Marroi iluna

CHAPIME

CITROËN
Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen C3 1.6e-Hdi Exclusive 90	15.500 €
2013 Diesela 750 km Gorri argia	
• Citroen C4 G.Picasso 1.6hdi CMP Millenium	18.000 €
2012 Diesela 26.238 km Grisa	
• Citroen C4 G.Picasso 1.6HDI CMP Millenium	18.000 €
2012 Diesela 29.782 km Beltza	
• Citroen C4 G.Picasso 1.6HDI Exclusive	21.500 €
2013 Diesela 1.200 km Gris iluna	
• Citroen C-Elysée 1.6HDI Exclusive 90	14.000 €
2012 Diesela 5.500 km Urdin argia	
• Citroen DS3 1.6e-HDI Style	17.500 €
2013 Diesela 25 km Gris iluna	
• Citroen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	35.000 €
2012 Diesela eta elektrikoa 13.000 Txuria	
• Peugeot Partner 1.6HDI Tepee Access 92	13.000 €
2012 Diesela 27.165 km Gris argia	
• Peugeot 508 Hdi ACTIVE 140 ZP	20.000 €
2011 Diesela 9.000 km Gris argia	
• Ford FT Tourneo 200 S Connect 75	4.500 €
2005 Diesela 129.456 km Txuria	

IGERIKETA

Iker Zabaleta eta Iban Ojea | Txantxiku Igeriketa Taldea

"Taldean egoteko bakarrik gogoia edukitzea eskatzen dugu: ez markarik eta ez podiorik"

- Orain sei urte sortu zuten igeriketa taldea itsas zeharkaldiak egiten zituzten oñatiarrek
- Gaur egun 34 igerilarik osatzen dute; exigentzia-maila norberak jartzen du

GUREN AUZMENDI | OÑATI

Iban Ojea eta Iker Zabaleta Txantxiku Igeriketa Taldeko kideak dira. Itsas zeharkaldiak egiten dituzte, herria kostaldetik gertu ez dagoen arren. 34 lagunek osatzen dute igeriketa-taldea; barrualdeko toki gutxitan dago horrelako taldea. Zeharkaldien denboraldi bete-betean dira momentu honetan.

Noiz eta nola sortu zen Txantxiku Igeriketa taldea?

I.Z.: Sortu zen orain dela sei urte; iaz izan zen bosgarren urteurrena taldearentzat, baina zeharkaldietan igerian beterranoenak aspalditik dabilta. Horiek urteak zeramatzen euren kontura igerian, baina talderik ez zegoen. Orain sei urte nik eta beste batzuek lehenengo zeharkaldiak egin genituenan, batera joaten hasi ginen edo topo egiten genuen lasterketetan. Dorsalak erosteko -eta hitz egiten genuen, baina ez geneukan ez izenik eta ez ezer. Ikusi egiten genituen besteak, bainujantziekin, izen eta guzti, eta esan egiten genuen "Ze arrai! Guk ere egin behar dugu zer bait". Esan eta egin, hasi eta urte pare batera sortu genuen Txantxiku Igeriketa Taldea.

I.O.: Ni orduan sartu nintzen, aurreko garaian ez nengoen. Geroztik, talde moduan agertzen gara zeharkaldietara.

Taldean egoteak zer eskatzen dio igerilariari?


I.Z.: Taldean egoteko gogoia bakarrik eskatzen dugu: ez markarik eta ez podiorik. Azkenean, taldea da bakarrik joan beharrean batera joateko: eguna pasatzeko aprobetxatzen ditugu probak. Igeri egin, bazkaldu, kalean buelta bat eman....

I.O.: Ahal denean behintzat. Ezin denean ezin baita: agian zeharkaldia egin eta buelta egiten dugu batzuek. Egunaren arabera. Taldekideei eskatzen diegun gauza bakarra da, urtean bat behintzat egitea. Gero afarira etorri eta taldekidea dela esan ahal dezan.

I.Z.: Esan nahi dugu taldekideok ez dugula kuotarik ordaintzen: nahi duena sartzen da. Jartzen dugun dirua izaten da izen-emaiteak egiteko eta bainujantziak erosteko. Gutako edozeinekin egon besterik ez dauka zeharkaldiak probatu nahi dituenak.

Taldekide guztiek proba berdinetan parte hartzen duzue?

I.O.: Adibidez, asteburu honetan zeharkaldi pila bat daude: zapatuan Bilbon, domekan Getarian, Errioxan eta Kantabrian ere bai. Pare bat doaz Bilbora, beste batzuk



Iker Zabaleta eta Iban Ojea igerilariak. | GUREN AUZMENDI

Getariara; ni Errioxara noa. Esan nahi dudana da talde barruan ere bakoitzaren egoeraren arabera aukeratzen dugula zer egin.

I.Z.: Badaude zeharkaldi batzuk, urtearen bukaera markatzen dutenak, taldekide gehienok egiten ditugunak. Igerian edo ikustera. Kontxako Badiakoa izaten da normalean, eta Atzeko Kaleko jaiekin batera izaten da. Denboraldi bukaerako afaria egiten dugu handik itzulitakoan. Taldekide gehienak elkartzeko gara kasu horretan.

Taldekideak igeriketa-mundutik zatozte?

I.Z.: Batzuk bai, lehenago ibilitakoak dira. Gure kasuan gehiago da beste kirolatik gatzela. Ni neu saskibalaitik nator. Orpo-ko lesioak eraginda esan zidaten igerilekua ona zela. Han ibiltzen nintzen igerileku txikian oinez, eta handian ikusten nituen taldekide beterranoak direnak. Ezagu-



Igerilariak iazko Getaria-Zarautz probaren hasieran. | TXANTXIKU IGERILARI TALDEA

tzen nituen eta esaten zidaten "egin salto igerileku handira eta animatu hadi zeharkaldi bat egitera". Bat egitera animatu nintzen, denboraldiko azkena, eta harrezkerero hementxe nabil.

I.O.: Denetik dago. Janire Urteaga, Xabier Gordoia, eta Kepa Alberdi ibili dira igerilekuan. Nire kasuan, kirol ezberdinak egin ditut. Neguan korrika egiten dut eta udan igeri.

I.Z.: Taldekide beterranoak ere igeri betidanik egin dute, baina mendian-eta ere ibiltzen dira.

Nola funtzionatzen duzue taldearen barruan?

I.Z.: Taldeko e-maila daukagu horretarako. Horren bidez gertzen gara. Proba baterako nortzuk gauden jakiteko, bazkaltzeko zenbat geratuko garen jakiteko Interneta erabiltzen dugu.

I.O.: Igeriketa kirol bakartia da berez; eta igerilekuan nik igartzen dut askoz ere hobea dela taldean

joatea. Gero, igeri bakarrik egin behar duzu, baina taldearekin hobeto ibiltzen gara.

Nola egiten dituzue entrenamendu-saioak?

I.O.: Itsasoan ez dugu entrenatzen; Herriko igerilekuan aritzen gara. Eta ez da batere erraza; jendez

lepo egoten da egun guztian. Ordurik lasaienak aprobetxatu behar izaten dira eta lanarekin, familiarekin egoki lotu: goizean eta eguerdian. Xabier Infantek markatzen dizkigu saioak. Gero bakoitzak ikusten du hori nola egin. Baina bere aholkuek laguntzen digute intentsitate ezberdinak ikusteko. Bestela gu beti irteten gara zeharkaldietan topera, aguantatzen dugunera arte. Astean 4-5 saio egiten ditugu 3000-3500 metrokoak. Baina taldeko beterranoek gutxiago egiten dituzte.

I.Z.: Benetan eskertzekoa da berak egiten duena. Egia da bere lana dela, baina goizean goizetik hasi eta iluntzean oraindik hortxe ibiltzen da. Igeriketa sailean eta gero gurekin ere bai: gomendioak eman, iritzia eman...

Zeintzuk dira zeharkaldirik garrantzitsuenak?

I.Z.: Taldeko beterranoek, bere garaian *Pro Tourreko* bost probak zeintzuk ziren erabaki zuten, eta egutegia egiten dugunean markatu egiten ditugu oraindik: Getariakoa, Ondarroakoa, Paseo Berriakoa, Kontxako Badiakoa eta Haizearen Orrazikoa. Eurak ia beti joaten dira hara: indartsu egon ala ez. Eta taldekoentzat bereziak izaten dira; beterranoek giroa jartzen dute horietan; saltsa egoten da. Baina gero taldeko bakoitzak izaten ditu proba gogokoak.

I.O.: Bilboko itsasadarrekoa ez da horietan sartzen, baina polita izaten da. Irtendakoan suhiltzailerek mangerekin garbitzen zaituzte. Eta beterranoek ez dute ulertzen "nola joango haiz erreka horretako urar zikinarekin!". Gu iaz han izan ginen eta asko disfrutatu genuen.

I.Z.: Getaria bat, esaterako ikusteko da handia: 1800 lagun batera hor ikustea. Irteera, helmuga sekulakoa izaten da. Ondarroakoa, adibidez, igeri egiteko politagoa da. 400 bat lagun elkartu ginen aurrekoan.

Itsasoaren egoerak asko baldintzatzen du proba?

I.O.: Eta uraren tenperaturak! Azkenengo bi astean gora egin du eta eskerrak. Orain 20-21 graduan dago: igeri egiteko ondo.

I.Z.: Orain dela hilabete, iaz baino 4-5 gradu gutxiagokoa zen tenperatura. Ez bazuen asko bertzen ikusten genuen irailerako utzi beharko genituela zeharkaldiak. Neoprenorik gabe, ia ordu-bete ur hotzetan ezin da egon. Baina 3 astean buelta eman dio: zeharkaldirako ezin hobeto.

"Igeriketa kirol bakartia da berez; taldearekin hobeto ibiltzen gara"

"Taldean sartu nahi duenak gutako batekin egon besterik ez dauka"

"Benetan eskertzekoa da Xabier Infantek egiten duena"

"Getaria bat, esaterako, ikusteko da handia: 1800 lagun hor ikustea"

KULTURA



Bergarrek Turkiako dantzak ikusi ahal izango dituzte egubakoitzean. | ELAI-ALAI



Les AS du Benin talde afrikarra Arrasaten izango da. | ELAI-ALAI



Beningoen ikuskizun bateko une bat. | ELAI-ALAI

Turkia eta Benin, Debagoienez

- ▶ Bihar, Beningo folklore ikuskizuna egongo da Arrasateko Monterron parkean, 23:30ean
- ▶ Uztailaren 26an Turkiako Gökmeydan Halkoyunlari taldekoek Bergaran egingo dute saioa

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Atzo hasi zen aurten 39. edizioa izango duen Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdia. Elai-Alai kultur elkarteak antolatuta, zazpi taldek hartuko dute parte aurten, besteak beste Kanadatik, Perutik eta Errusiako Kalmukia Errepublikatik etorritakoak. Baina aurreko urteetan bezala, taldeek Portugaleten ez ezik beste herri batzuetan ere erakutsiko dute euren folklorea.

Debagoienera bi talde etorriko dira: bihar, martitzena, Beningo Les AS du Benin egongo da Arrasaten; egubakoitzean, aldiz, Turkiako Gökmeydan Halkoyunlari dantza taldeak egingo du saioa Bergaran.

Dantza erritualak

"Taldea nahiko gaztea da, herrialdeko kultur talde garrantzitsuenetakoa", dio Elai-Alaiko presidente Gaizka Benguriak Les AS du Benin taldeari buruz. 1991an sortutakoa, *Houetanou* da Arrasatera ekarriko duen ikuskizunaren izena. Monterronen izan-

go da dantza saioa, bihar, 22:30ean hasita.

Nolako dantzak egiten dituzten galdetuta, Benguriak dio dantza indartsuak direla: "Dantza erritualak dira, sakonak". Bere esanetan akaso beste batzuen janzkerak deigarriagoak izango diren arren (talde afrikarrak ez du arropa asko erabiltzen), aurregi eta gorputzeko makilajeak argi gehiago ematen die.

Turkiakoak, lasaiagoak

Turkiako Gökmeydan Halkoyunlari taldean, kideak Beningoak baino zaharragoak izan arren, taldea berriagoa da, 2004ean sortutakoa. Euren errepertorioa, herrialdeko eskualde ezberdinetako dantzek osatzen dute.

Hogei dantzari inguruk eta bi musikaririk osatzen dute taldea, eta afrikarren dantzekin alderatuta, dantza askoz ere "lasaiagoak" egiten dituztela dio Gaizka Benguriak: "Horrek ez du esan nahi txarragoak direnik, guztiz ezberdinak baizik. Gainera ez da ikuskizun monotonoa: musikak pro-

tagonismo gehiago hartzen duenean, nabari dira erritmo eta dantza aldaketak".

Turkiarrak egubakoitzean, hilaren 26an egongo dira Bergaran. San Martin plazan izango da ikuskizuna, 19:00etan hasita.

Harrerarekin pozik

Diru aldetik urte onena ez den arren, Benguriak dio Portugaleteko jaialdia osasunez nahiko ondo dagoela, eta beste herrietara egiten dituzten irteerekin ere oso pozik daudela: "Herrietara ikuskizun ezberdina erosten dugu; normalean ez da aukerarik egoten horrelakorik ikusteko. Gainera, egun bidaiatzea errazagoa izan arren, beti da ezberdina zure herrira etortzea: ez da hain erraza bidaiari joan eta hango folklorea ezagutzera".

Elkarbizitzari esker gainera, taldeek gainera, guretik ere ikasten omen dute. Izan ere jaialdiak irauten duen denboran, talde guztiak eta antolakuntzakoak eraikin berean bizi dira, Portugaleteko Asti Leku ikastolan.



Zahar Alai taldekoak. | GOIENA

Argentinatik etorritako euskal dantzak

Egubakoitzean egongo dira turkiarrak Bergaran; aurreko egunean baina, eguenean, Argentinako Necochea herriko euskal etxeko dantza talde batek ikuskizuna eskainiko du.

Arbasoen sorlekua ezagutzera etorri diren argentinar hauek Euskal Herrira, eta hango Zahar Alai dantza taldeko kideak ere badirela aprobetxatuz eskainiko dute ikuskizuna. San Martin plazan izango da dantza saioa, 19:00etan hasita.



Kepa Junkera egubakoitzeko kontzertuan trikitixa jotzen Eskoriatzako Santa Marina Plazan. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Generadoreak pot egin zuen arte

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Argi generadoreak nahikoa zela erabaki zuenean, Orduan amaitu zen Kepa Junkerak Eskoriatzan eman zuen kontzertua: ez jendeak bis-ak eskatzeaz nekatu zenean, ezta ere bizkaitarrak atsedean hartzeko ordua zela erabaki zenean.

Arazo tekniko batek eten zuen emanaldia, eskerrak, baina, bilbotarrak ordurako kontzerturako aurreikusita zuen errepertorioa osorik bete zuela. Hala ere, kontzertu amaieran ohitura da ikusleen eskakizunei erantzutea, eta Junkera jarraitzeko gogoz geratu zen, segurua. Izan ere, emanal-

di ederra izan zen egubakoitzekoa. Eskoriatzako Santa Marina plazan jendetza batu zen -400 lagun- eta Junkerak gustora geratzeko moduko emanaldia egin zuen, nahiz eta aurreratu moduan, arazo tekniko batzuk izan ziren.

Musika instrumentala nagusi

Junkera saiatzen da esperientzia handiko musikariak ondoan izaten, babesa ematen diolako eta baita bere burua gehiago saiatzera behartzen duelako.

Hori horrela, harekin batera taula gainean Jose Luis Canal pianojolea eta Iñigo Olazabal

perkusionista ere izan ziren. Horrez gain, alboka ere erabili zuten kanta batzuetan, baina batek baino gehiagok txalaparta

FITXA

MUSIKA

KEPA JUNKERA

Estiloa: Trikitixa

Non: Eskoriatza

Eguna: Egubakoitza, uztailak 19

Iraupena: 2 ordu inguru.

faltan bota zuen: Musika instrumentala nagusitu zen emanaldian, eta trikiti doinu alaiek lagundu zuten. Hala, Junkeraren disko-grafia osoaren errepaso bat egin zuten kontzertuan; emanaldi askea eginez, inprobisazioa eta sormen momentu askokoa.

Arazoak saihestuz

Arratsaldeko soinu probak egitean euri ttanta batzuk erori ziren, antolatzaileen artean beldur pixkat sortuz, baina eguraldiak ongi eutsi zuen eta ez zuen txarrera egin.

Kontzertua hasi bezain pronto generadorearekin arazoak izan ziren, baina foku batzuk kendu ondoren argi gutxi batzuekin kontzertu aparta eman zuen Junkerak. Aurkeztutako gertakariak ez zuten kontzertua zapuztu eta giro ederrean kontzertu aparta izan zen.

Antolatzaileak pozik

Gau gogoangarria izan zen, leku aproposan. Ikusleek plaza osoa bete zuten; batzuk aulkietan, beste batzuk Santa Marina plaza alboko eserlekuan eta beste hainbat zutik; halaxe jarraitu zuten kontzertua. Baina, ikusleen txaloekin beharrean, harridura oihuekin bukatu zen emanaldia. Kepa Junkera eta taldekoak ikusleei erreberentzia egiten ari zirela, argia joan zelako.

Disko berria prestatzen

Egubakoitzeko Eskoriatzako kontzertuaren ondoren lasai hartuko ditu uztaila eta abuztua Junkerak. Baina honek, ez dio lan egiteari utziko. Beste erritmo batean disko berriari azken ukituak eman go dizkio eta udazkenerako disko berria kaleratzea espero du. Galiziari omenaldi eginez txalaparta eta trikiti doinuekin.

Txistuleroek Arrasateko kaleak alaitu zituzten

Aldarte onarekin ospatu zuten Txistulero eguna Arrasaten. Goizetik hasita, 25 txistulari egun osoan ibili ziren herriko txokoak alaitzen. Batez ere, alde zaharrean jo zuten gehien, baina beste hainbat txokotan ere ibili ziren. Eurriak etzien hondatu eguna eta aterpeetan -argazkian- jarraitu zuten musikaz herria alaitzen.



IMANOL BELOKI

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Duplexa salgai. Lau logela, hiru komun, egongelata sukaldia. 120 metro koadro. Berria da, urte bat baino gutxiago dauka. Beheko solairua jantzita dago. Garajea aukeran. Plazatik oso gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 656 74 29 49

102. EROSI

Oñati. Etxebizitza erosi edota errentan hartuko nuke. Egokiena sukaldia, egongela, bi logela eta komunazitea litzateke. Garajea ondo legoke baina ez da ezinbestekoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 02 32 67

103. ERRENTAN EMAN

Elgeta. Etxebizitza errentan ematen da Elgetako Salbador kalean. bi logela, sukaldia eta egongela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 23 10 19

Zaragoza. Unibertsitate kanpusetik gertu. Dena kanpoaldean. Lau logela. Egongela. Sukaldia. Bi bainugela. Garajea. Aire egokitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 08 31 edo 659 58 56 83

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Pertsona bakararentzat. Langilea naiz. Deitu telefono zenbaki honetara: 634 41 90 51

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Familia txikia. Deitu telefono honetara: 631 36 17 62

Bergara. Etxea hartuko nuke errentan. Deitu telefono zenbaki honetara: 609 38 86 47

Debagoiena. Biedo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan Debagoienean. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 38 52 28

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke Bergara, Arrasate, Aretxabaleta inguruan. Bikote eta lagun batek hartuko genuke. Pertsona arduratsua, langile eta ikasleak gara. Prezio ekonomikoa behar dugu 400 eurotik beherakoa. 606 74 42 37 edo 671 33 75 60

Gela bat alokatu nahi dut Eskoriatzan. 2013ko irailean hasieratik abenduaren bukaera edo erraildera arte gela bat alokatu nahi dut, Eskoriatzan. 39 urtetako emakume eskaldun eta arduratsua naiz. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 40 83 80

105. ETXEA OSATU

Aretxabaleta. Erdialdean logela ematen da errentan. Josean. 603 14 28 89

Bergara. Logela ematen da errentan. 699 09 46 26

Bergara. Osintxun pisua osatzeko lagun bila nabil. Irailetik aurrera. 670 02 31 90

Logelak errentan. Arrasate erdialdean 2 logela alokatzen dira. Deitu telefono zenbaki honetara: 693 80 64 18

Oñati. Bi logela alokatzen dira duplex bat osatzeko. Sukaldia eta egongela konpartitzeko. Etxe berria da eta erdigunetik oso gertu dago. Deitu eta animatu ikustera! 656 74 29 49

Oñati. Pisua osatzeko pertsona bat beharko genuke. Langilea izatea gustatuko litzaziguke. Deitu zenbaki honetara 20:00etatik aurrera. 653 74 87 51

Pisu kide bila Arrasaten. Ikasleak, 4 gelako etxea, haundia eta oso eguzkitsua. Ikasleendako gertatuta. 200 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 649 70 50 56

Pisukide bila gabilta. Bi gela daukagu alokatzeko lau gelako duplex baten, Arrasaten. Prezioa: 200 euro hilabetean, gastu guztiak barne. Internet, telefonoa, argia, ura, garbiketa eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 84 49 20

2. GARAJEAK

201. SALDU

Elgeta. Salbador 21ean, garajea salgai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 650 23 10 19

Oñati. Garaje itxia salgai Arantzazuko Ama kaleko 21ean. Handia da eta autoa garbitzeko lekua dauka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 630 29 44 89 edo 946 76 19 24

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia, Jokin Zaitegi plazan, prezio interesgarria. Tel.: 626 00 68 37

204. ERRENTAN HARTU

Garajea Bergaran. Bi autoerentzat lekua duen garaje itxia hartuko nuke errentan Bergaran. Edozein auzotan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 667 25 18 69

4. LANA

402. ESKAERA

Bergara edo Arrasate. Bergaran edo Arrasaten lana aurkitu nahi dut. Edozer lan egiteko prest nago. 602 87 46 25

Bergara. Batxilergo ikasketak bukatu dituen neska eskalduna uztaillean haurrek zaintzeko prest. 676 69 56 20 edo 943 76 40 52

Bergara. Emakume eskaldun arduratsua, puerkultura ikasketak dituen, umeak zaintzeko gertu. Arantza. 688 65 30 62

Bergara. Umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 943 76 12 39

Debagoiena. 49 urteko neska eskalduna gertu abuztuan nagusiak etxean edota egoitzatan zaintzeko. 619 42 75 21

Debagoiena. Bikotea gertu baserrietan lan egiteko eta nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 699 09 46 26

Debagoiena. Emakume arduratsua lan egiteko gertu. Dokumentuak egunean ditut. Disponibilitate osoa. Nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egiteko. 636 80 87 68

Debagoiena. Emakume espainiarra lanerako gertu garbitasun lanetan zein nagusiak eta umeen zaintzan jarduteko. Esperientziaduna. Baita gauak egiteko ere. 722 32 43 67

Debagoiena. Emakume eskalduna lana bilatzen Debagoienean. Nagusiak edo umeak zaintzeko prest dago, esperientziaduna eta inforreak dituena. Ospitaleetan gauak pasatzeko gertu dago. Autoa dauka eta disipnibilitate guztia du. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

Debagoiena. Emakumea nagusiak zaintzeko gertu. Orduka lan egiteko baita etxean bertan bizitzeko. Esperientziaduna. 671 21 55 26

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Gauetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita orduka ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 99 42 03

Debagoiena. Gizonezkoa lan egiteko gertu. Kotxea daukat. Garbitasun lanak egiteko edo zerbitzaril lanetarako. Disponibilitate osoa. 631 43 36 08

Debagoiena. Goizez lan egingo nuke, 8:00etatik 13:00etara, edo baita gauaz nagusiak zaintzen ere. Sukaldean eta plantxa egiten dakit. Gidabaimena daukat. Deitu telefono zenbaki honetara: 602 36 39 92

Debagoiena. Hamar urteko esperientziaduna duen emakume lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen, garbitasunean eta abar. Etxean bertan bizitzeko, egun osoz zein orduka. Legezko paperak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 11 31 09

ARRASATE

Jardunean dagoen etxe-agentzia eskualdatzen da, erretiroa hartzeagatik. Aitzindaria Arrasaten.

Eusko Jaurilaritzak homologatua ASAP programarako.

Bezero ugari Debagoien osoan. Prestakuntza eta tutoretza, APLA uzten duenarengandik.

943 77 13 02

Debagoiena. Lana egiteko prest: etxeko lanak, adinekoak edo umeak zaindu, edozein garbiketa mota, sukaldari laguntzaile eta abar. Deitu telefono honetara: 625 86 99 51

Debagoiena. Mutil arduratsua lanerako gertu. Mekanika, elektrizitatea, informatika, parkea montatzen, margoketa eta abarretan lan egindakoa naiz. 619 75 80 01

Debagoiena. Mutila gertu lanerako, uda guztirako. Baita abuztuan ere. Orduetegi malgua. Autoa daukat. 654 98 69 14

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzen edota garbitasun lanetan aritzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 661 94 19 13

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Orduka edo etxean bertan bizitzeko. 602 07 32 82

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzeko, garbiketarako egoteko eta nagusiak zaindu zein pasioan laguntzeko. 695 73 87 95

Debagoiena. Neska eskalduna gertu nagusiak zaintzeko. Klinikak laguntzaile titularekin. Itsaso. 619 51 17 89

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. Etxean bertan bizitzeko edo egun osoz. 671 10 39 13

Debagoiena. Neska gertu lanerako: sukalde laguntzaile, garbitasunak eta etxeko lanak egin eta abar. Orduetegi malgua: egunez, zein gauaz. Sukalde eta eritzaintza laguntzaile ikasketak ditut. 630 20 12 03

Debagoiena. Neska lan egiteko gertu Debagoienean edo kanpora. Geriatría tituladuna. Nagusiak zaindu edo ospitalean gauak pasatzeko. Kotxea daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 80 27 01 edo 943 25 02 96

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusi edo umeak zaintzen zein garbitasun lanetan. Egun osoz, orduka edo etxean bertan bizitzeko. Neyda Moran. 630 61 78 65

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzen jarduteko gertu. Etxean bizitzeko edo bestela. Deitu 636 77 44 24 telefonora.

Debagoiena. Nikaraguako gazte arduratsua lanerako gertu. Nagusiak zainduko nituzke baita baserrian ere. Inforreak eta ikasketak ditut. Deitu 633 28 81 24 telefonora.

6. MOTORRA

601. SALDU

Autokarabana Hymer 594. Autokarabana salgai. Kaputxina sei plazakoa. 58.000 kilometro eta 2004. urtekoa. Gehigarriak: hiru bateria, alarma integratua, tehebista, kameradun atzerako ispilua, toldoa, bizikletak eramatekoa, eta abar. Oso ondo zaindua. 24.500 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 692 97 92 15 edo 653 70 27 50

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Artzai txakurkumeak opari. Gorbeia arrazako artzai txakurkumeak ematen dira opari. Oso politak. 655 71 39 27

Txakurkumeak opari. Border Collie eta euskal artzain txakurren arteko nahasketa. 696 06 89 66

Txakurkumeak opari. Hila-bete duten gurutzatutako artzain belga txakurkumeak ematen ditut opari. 656 74 85 11

704. BESTELAKOAK

Katua opari. Zaindu ezin dudalako, katua ematen dut opari. Emea da eta hiru urte ditu. Nahasketa da. Esterilizatua eta azazkal barik. Betei etxean egon da eta ondo hezitua dago. Etxean hartu eta zaindu gura baduzu, deitu zenbaki honetara: 663 72 78 60 edo 943 79 14 36

Txakur bat agertu da Oñatin. Uztaiaren 16an, martitzena, txakur zuri-beltz bat agertu zen Oñatin, Uhartalde auzoan. Haren jabea baldin bazara Udaltzaingoan galdetu. 943 08 10 00

Txakurra galduta Aramaion. Hiru txakur galdutako ziren martitzenean, uztailaren 2an, Aramaion. Spaniel beltz bat eta bi setter: bata zuri-beltza eta bestea zuri, gorri eta beltza. Aurkitu edo ikusi badituzu, deitu mesede zenbaki honetara: 662 28 92 69 edo 615 73 85 77

8. DENETARIK

801. SALDU

Arropa, zapatak eta bestelako osagarriak saltzen ditut. Interesatuok deitu telefono honetara: 606 24 79 09

802. EROSI

Trikitia. Bigarren eskuko trikitixa erosiko nuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 600 37 54 97

804. HARTU

Bizikletak. Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko daukazun bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Iñaki. 699 06 23 95

806. GALDU

Betaurreko graduatuak. Arrasaten, Eroski zentro komertzialean edota Lidlen galdu ditut. Beltz koloreko monturadunak dira eta marrazko berdeka bat dute. Sokatxo beltz batetik zintzilikatuta neramatzala galdu nituen. Deitu telefono zenbaki honetara mesedez. 943 76 54 83 edo 626 09 47 11

Olympus kamera Bergaran. Ekain bukaeran kamera galdu genuen Bergaroko Santa Marina parkean. Niretzat balore handiko argazkiak daukat eta eskertuko nuke hauek errekueratzera. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 15 36 edo 636 73 77 30

Zilarrezko pultsera. Zilarrezko pultsera galdu nuen uztailaren 6 eta 7ko asteburuan, Bergaran. Autobus geltokitik Artzamendira bidean. Eskertuko da. Interesatuok deitu telefono honetara: 943 76 52 39

808. BESTELAKOAK

Zelaia. Zelaia behar da, Bergara edo Soraluze inguruan, denboraldi batez bi pottoka bertan edukitzeko. 639 09 95 22 edo 680 36 22 41

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Taldeak behar du Debagoieneko

AHOLKULARI KOMERTZIALA

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan jarduna.
- Lantaldean lan egitea.

Eskatzen da:

- Euskaraz ondo jakitea (ezinbestekoa da).
- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
- Lantaldean lan egiten jakitea.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Teknologia berrietan ezagutza: Internet, sare sozialak, smartphoneak...
- Debagoienean edo inguruan bizi izatea eta hura ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali uztailaren 30eko 12:00ak baino lehen ondorengo helbidera: idazkaritza@goiena.com

Aukeraketa irailen egingo da.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.net/argazkiak

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak



MIKEL SEDANO RUEDA. 2012ko Sari Nagusiaren irabazlea.



MIREIA AGUIRRE. 2012ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



GARAZI OLABARRIA. 2012ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 5etik irailaren 20ra (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blegean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otarora Lizentziaduna 31, Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05, Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan, gutun-azal batean sartuta, CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.

- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan, Facebook-en (www.facebook.com/udakoargazkiak) eta Twitter-en (www.twitter.com/udakoargazkiak) ere erakutsiko dira argazkiak.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilaria profesionalak osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!


- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela:
 - Twitter bidez, [@udakoargazkiak](https://twitter.com/udakoargazkiak) helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda.
 - Facebook bidez, [facebook.com/udakoargazkiak](https://www.facebook.com/udakoargazkiak) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blegean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatearik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

Sariak

1. saria

Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik.

- 14,2 megapixel.
- Full HD bideo-grabazioa.
- 3 hazbeteko pantaila.
- Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa.
- ISO 100-3200 sentsibilitatea.
- Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: bi pertsonendako SPA zirkuittua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotolean Arrasate Bidaiak-en eskutik.



3. saria: bi pertsonendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.



Herritarren saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.



Boto emaleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarrea, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI
zurekin
karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com



Nasdaq indizea pantailetan. | SOCIALISTPARTY.NET

Microsoft eta Googlek, azken emaitzen berri

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Azken hiruhileko fiskalaren emaitzak eman dituzte jakitera azken astean Google-ek eta Microsoft-ek. Analisten datuek gain, emaitza hauekin benetan aurtengoari dagokionez, Interneteko nagusi diren bi enpresei nola doakien ikus daiteke. Google-ek beste behin ere hazkundera izan du eta irabazi garbieran iazko epealdi berdinean baino %19 gehiago hazi da. Espero baino hazkundera txikiagoa izan da, hala ere, nahiz eta aurreikuspenekiko alde txikia izan den, azkenean. Google-ek hortaz, 2013ari dagokionez, gutxi gorabehera esperotako emaitzak

izan ditu. Google-en diru sarrerak 14.110 milioi dolarrekoak izan dira urteko bigarren hiruhilekoan.

Microsoftek, oster, behera egin du baina iaz baino %10 gehiago hazi da diru sarreretan. Sarrerak 19.900 izan badira ere 900 milioi galdu dituzte Surface RT tabletak izandako harrera txarrak eraginda. Diru asko da produktu baten arrakastarik ezak eragiteko. Orain Surface RT tabletari prezioa gutxitu diote, gauzak konpontze aldera. Hala ere, negozioaren beste unitateetan ez dituzte emaitza txarrak izan Microsoften oraingoz.

Hazkunde handia telebistarekin lotutako txioetan

J.B. | ARRASATE

Espainiako estatuan telebistak saiotei buruzko txioek zenbateko presentzia duten neurtu dute beste behin ere. Urtebetean 1,5 milioi mezutik 8,8 milioi mezura igo da urteko kopurua. Hala, Espainian prime-time delakoan (21:00etatik aurrera) egiten diren txioen %32 telebistako saiotei edukiei buruzkoak dira.

Esanguratsua da azken urtean telebistako saiotekin lotutako twitter jarduerak jasan duen hazkunde azpimarragarria. *Gran Hermano* moduko saio batek, esate baterako, emisio bakarrean 560.000 mezu baino gehiago eragin ditu ala futbolak 194.000 mezu gora.



Twittern logoa. | CONNECTIVIST

WhatsApp ordainpekoa izango da iOS-en eguaztenetik aurrera

J.B. | ARRASATE

iPhone-eko erabiltzaileei ere kobratzen hasiko da eguaztenetik aurrera Whatsapp. Urteko 0,99 zentimo balioko du aplikazioak aurrerantzean eta horrela, gainontzeko sistema eragileetako erabiltzaileen baldintza berdinetan erabiliko dute aplikazioa iOS darabiltenek. Soilik aplikazioa lehen aldiz deskargatzen dutenei eragingo die neurri berriak eta ez aurretik instalatuta duten horiei.

Albiste, berez, ez da berria, urte hasieran egin zuten iragarpena beteko dutelako. Lehen urtea doan izango da eta bigarren urtetik aurrera urtean behin kobratu egingo diete erabiltzaile berriei.

Albiste ofiziala

Iragarpena ofizialki, konpainiaren blogaren bitartez egin dute eta arrazoi moduan azaldu dute kobratzeko erabakia hartu dutela publizitaterik txertatu behar ez izateko. 0,99 zentimoko urteko kobrantzarekin, zerbitzuari eutsi ahal izango diotela diote erabiltzaileei publizitaterik txertatu gabe.

Berriek soilik

Hain zuzen, 200 milioi pertsona baino gehiagok erabiltzen dute mezularitza aplikazioa hilean.



WhatsAppen ikonoa. | GOOGLE

Ordainketa baina ez dute erabiltzaile guzti guztiek egin beharrik izango, erabiltzaile berriek soilik ordaindu behar dute eta aplikazioa erabiltzeagatik. Eguaztenera arte erabiltzaile izandakoek ez dute ordainduko. Are gehiago, Whatsapp-etik ziurtatu dute orain arteko erabiltzaileentzat beti izango dela doakoa, ez dietela etorkizunean ere kobratuko.

Erabiltzaile berriek, ordea, abantailak izango dituzte iOS-en, izan ere, mezuak iCloud-en gordetzeko aukera izango dute, telefonoa galdu ala aldatzerakoan mezuak berreskuratzeke modua izango dutelarik. Aplikazioaren azken eguneraketan ere badator ezaugarri hori.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalگو@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

TELE-BEGI

OIHAN
VEGAFrankismo garaiko
erromboak berriro

Duela gutxi entzun genuen telebistan Jose María Aznar presidente ohia berriz ere itzuliko dela politikagintzara.

Hori gutxi balitz, aspaldiko Francoren garaiko erromboak berreskuratu nahi ditu espainiar gobernuak telebistako edukia katalogatzeko.

Batetik, nire galdera zera da: ikusentzunezko edukiak antolatzeke egungo legeak ez al du balio? Nik dakidala, publiko osoarentzat ez den telebista saio orok, gutxieneko adina adierazi behar du gaur egun, (7, 13 edo 18 urte). Horrek ez du balio? Francoren errombo kasposoak beharrezkoak dira?

Bestalde, gobernu batek esan behar dit niri zer ikus dezakeen nire haurrak? Gurasoek ez al dute ahalmenik euren kabuz erabakitzeke zer den euren seme/alabek ikusi behar dutena? Non geratuko da txikitik amatxoren ahotik beti entzun izan dgun esaldi tipikoa: 'hau ezin duzu ikusi, hau handientzat da'. Haurtzaro zoriontsu guztiek behar dute egiaztapen kutun hori entzutea.

Zer dago erromboak berreskuratzeko asmoaren atzean? Benetan gure haurren heziketa da espainiar gobernuari arduraz zaiona? Edo beste esparru guztietan pairatzen ari garen atzerapausu guztien metafora bat da?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 22



'Harmailatik'

Debagoieneko koadri-
len arteko futbol zazpi txapelketaren berri emango dizuegu kirol saioan. | 21:56

12:00 Magazinea
13:00 Udakoak
13:40 Pedalka
14:10 AsteON
14:40 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion Agurrak
15:23 AZK2012
16:23 Pedalka
16:53 Zorion Agurrak
17:00 Berriak 17:30 Eguraldia
17:33 Onein
18:10 Zorion Agurrak
18:15 Udakoak
18:55 Erreportajea
19:40 Zorion Agurrak
19:47 Berriak
20:12 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Berriak
21:54 Eguraldia
21:56 Harmailatik
22:41 Ikusten
23:24 Magazinea
00:21 Eguraldia

MARTITZENA, 23



Udararako dieta

Amaia Diaz de Monas-
terio guren dietista oñatiarrak azalduko digu udaren zein dieta eraman. | 20:15

12:00 Magazinea
12:45 Segala ligaxka
13:15 Harmailatik
14:00 Erreportajea
14:43 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:58 Onein
16:20 AsteON
16:55 Zorion Agurrak
17:00 Berriak
17:25 Eguraldia
17:28 AZK2012
17:58 Ikusmira
18:10 Zorion Agurrak
18:15 Udakoak
18:55 Harmailatik
19:40 Zorion Agurrak
19:45 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Huhezinema
22:00 Berriak
22:25 Eguraldia
22:30 Magazinea
23:15 Klaketa
23:56 Berriak
00:01 Berriak
00:26 Eguraldia
00:29 Magazinea

EGUAZTENA, 24



Osasun aholkuak

Eguzkitik babesteari
buruz hitz egingo digu Maider Sierra Minbi-
ziaren Aurkako Elkar-
teko kideak. | 20:15

12:00 Magazinea
12:45 Erreportajea
13:28 Harmailatik
14:13 Pedalka
14:41 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:54 Onein
16:14 Harmailatik
16:59 Zorion Agurrak
17:04 Berriak
17:29 Eguraldia
17:32 Huhezinema
18:05 Ikusmira
18:17 Harmailatik
19:02 Ikusten
19:45 Zorion Agurrak
19:50 Berriak
20:10 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:04 Gurean gaur
21:34 AsteON
22:04 Berriak
22:29 Eguraldia
22:31 Magazinea
23:16 Harmailatik
00:14 Berriak
00:39 Eguraldia

EGUENA, 25



'Planik bai?'

Asteburuko kultura
kontuen berri emango
dizuegu *Planik bai?*
saioan, Naiara Uriar-
teren eskutik. | 17:56

12:00 Magazinea
12:50 Ikusten
13:32 Onein
13:56 Erreportajea
14:39 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Huhezinema
15:43 Ikusmira: Sahatsa dantza taldea
16:58 Zorion Agurrak
17:03 Berriak
17:28 Eguraldia
17:31 Onein
17:56 Planik bai?
18:16 Huhezinema
18:46 Klaketa
19:16 Zorion Agurrak
19:22 Planik bai?
19:47 Zorion Agurrak
19:53 Berriak
20:13 Eguraldia
20:15 Magazinea
21:00 Gurean gaur
21:30 Pedalka
22:00 Planik bai?
22:20 Berriak
22:45 Eguraldia
22:48 Magazinea
23:33 Klaketa
00:10 Eguraldia

EGUBAKOITZA, 26



'AsteOn'

Astean zehar bailaran
gertatutako albiste
esanguratsuenen
errepaso a egingo
dizuegu. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Gurean gaur
13:30 Huhezinema
13:50 Pedalka
14:20 Planik bai?
14:39 Zorion Agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:43 AZK2012
15:43 Ikusten
16:26 Zorion Agurrak
16:32 Planik bai?
16:56 Berriak
17:21 Eguraldia
17:24 Udakoak
18:04 Erreportajea
18:47 Planik bai?
19:07 Berriak
19:37 Eguraldia
19:42 Gurean gaur
20:12 Planik bai?
20:37 Zorion Agurrak
20:42 Berriak
21:07 Eguraldia
21:10 Gurean gaur
21:40 Planik bai?

ARRASATE IRRATIA

Udako oporren aurreko
azken zuzenekoak
egingo ditugu asteen

Astelehenetik egubakoitzera bitartean 10:00etan izaten dugun *Uda giroan!* irratsaioaren azken zuzenekoak egingo ditugu aste honetan. Izan ere, egubakoitzean oporrak hartuko ditugu irailaren 2ra arte. Bitartean, baina, musika entzun ahal izango duzue 24 ordutan, 107.7an.

Los Galerna musika
taldekoei elkarrizketa
egingo diegu, 107.7an

Los Galerna taldeko Jagoba Domingo izango dugu gaur, astelehena, Arrasate Irratiko *Uda giroan!* irratsaioan, 11:00etan. Abuztuan Mexiko aldera joango dira taldekideak *Akelarre* hirurgarren lana aurkeztera eta Mexikon nondik nora ibiliko diren azalduko digu Domingok.

Nazioarteko Folklore
jaialdia berbagai,
martitzenean

Elai-Alai kultura elkarteko presidente Gaizka Benguria elkarrizketatuko dugu bihar, martitzena, Monterron parkean egingo den Nazioarteko Jaialdiaren nondik norakoak kontatzeko. Benin-eko *Les As du Benin* taldearen ikuskizuna ikusi ahal izango da Monterronen eta xehetasunak emango dizkigu Benguriak.

TELE-ALBISTEAK

Antzuolako jaiak ikusi
ahal izango dituzue
gaur, 'Magazinea'-n

Eguenetik domekara bitartean Antzuolako jaiak eman dutena erakutsiko dizuegu gaur 20:15ean

AMAIA TXINTXURRETA | ANTZUOLA

Amaitu dira Antzuolako jaiak eta seguru asko oraindik bihar ramunarekin egongo da bat baino gehiago. Biharamun horri aurre egiteko, baina, hementxe duzue errezeta: Goiena telebistak eskainiko dizuen Antzuolako jaien gaineko saioa ikustea.

Magazinea-n erakutsiko dizuegu gaur, astelehena, aurtengo jaiak eman dutena. Izan ere, egue-
nean jaiak hasi zirenetik, hara eta hona ibili da Imanol Gallego kazetari saltseroa Antzuolako jaietako momentu onenak jasotzen

eta horiek guztiak ikusgai izango dituzue gaur 20:15ean, Txomin Madina aurkezlearen gidaritzapean.

Ekitaldietan jasotako ikusgai

Eguenetik jaien hasiera ikustez gain, aukera izango duzue baita ere umeen agurra ikusteko. Egurdian egin zen umeen bazkarian ere izan ginen eta baita arratsaldeko ikurrin dantza eta udalbatzaren aurrekuan ere. Eguna amaitzeko egin zuten herri afariko irudiak ere ikusi ahal izango dituzue eta bertakoen adie-



Egubakoitzeko patata tortilla lehiaketan parte hartu zuen mutil talde bat, jai giroan. | ARANTZAZU EZKIBEL

Egubakoitzean jaien
gaineko saio berezia
ikusgai izango
duzue 22:40an

razpenak ere entzun ahal izango dituzue. Baita ere jaso genuen egubakoitzeko patata tortilla lehiaketa eta poni eta zezentxoak. Nola ez, zapatuko mairuaren alardean ere izan ginen eta domekako herri kirolek eta larrain

dantzak emandakoa ere jaso dugu, umore onean.

Egubakoitzean saio berezia

Horrekin guztiarekin, saio berezia ere egingo dugu eta egubakoitzean emango dugu 22:40an.



BERGARA
Izar Curado Uzin
Abuztuaren 15ean, 10 urte. Ondo pasatu zure eguna. Denok ospatuko dogu. Segi alai eta jator. Zorionak, prexiosa, batez ere Ekaitz, Oier eta Eleneren partetik. Muxu potoloak. Aupa Reala!



OÑATI
Mikel Guridi Murua
Abuztuaren 14an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oporretan bapo ospatuko dogu tarta goxo batekin! Patxo handi bat etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Ihintza Sarasua Ezkurra
Abuztuaren 11n, 4 urte. Zorionak Orioko gure printzesatuari. Muxu handi bat etxeko denon partetik eta lau belarri tirakada Mararen aldetik.




BERGARA
Maialen Garcia Urbietia
Abuztuaren 2an, 2 urte. Zorionak, Maialen! Gure sorgintxuak bi urte. Ondo pasatu eguna eta segi horrelako alai izaten. Muxu asko familia guztiaren partetik.



OÑATI
Ane Garitano Moiu
Uztailaren 31n, 5 urte. Zorionak gure panpoxari etxeko guztion partetik! Egun eder-ederra pasatu eta prestatu txokolatzeko pastela! Patxo bat.



ARRASATE
Airam Duarte Maria
Uztailaren 30ean, 7 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat. Yaiza. Muak!



ARETXABALETA
Uxue Ibabe
Uztailaren 30ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Tori musu erraldoi bat etxeko guztien eta, batez ere, Egoitzen partetik.



OÑATI
Mikel Uriarte Agirre
Uztailaren 30ean, 6 urte. Zorionak etxeko ganberroari aita, ama eta Julenen partetik.



ARETXABALETA
Alazne Uribesalgo
Uztailaren 29an, 10 urte. Zorionak amatxo, aitatxo eta familia guztiaren partetik!



ESKORIATZA
Unax Arrese Otamendi
Uztailaren 29an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunien eta merixenda goxue preparatu dano. Patxo potolue zure anai eta lehengusuen partetik. Aupa Erreala!



OÑATI
Oihana Txintxurreta Lazkano
Uztailaren 29an, 31 urte. Zorionak, Oihana! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu erraldoi bat etxekoan, eta bereziki, Aneren partetik.



ANTZUOLA
Naroa Aranguren Gastañares
Uztailaren 28an, 11 urte. Zorionak, bihotza! Ondo pasa ezazula zure egunean. Muxu pottolo bat etxekoan partetik, bereziki Naiarena.



BERGARA
Eztizen Bolaños Valpuesta
Uztailaren 27an, 29 urte. Zorionak etxekoan partetik. Segi zaren moduko pertsona ona, goxua eta alai izaten. Espero dugu zoriontsu izatea. Musu handi bat.



OÑATI
Peio Axpe Elkororibe
Uztailaren 27an, 6 urte. Zorionak, mutikote, jada 6 urte. Jarraitu horrela. Muxu bat familikoan partetik eta ondo pasatu zure eguna.



BERGARA
Mara Aranes Albusua
Uztailaren 27an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure seigarren urtebetetzian. Patxo asko etxekoan partetik.



ARRASATE
Ana Kortabarria
Uztailaren 27an, 60 urte. Zorionak eta urte askotarako, ama! Disfrutatu zure egunaz merezi dozun moduan! Etxekoan partetik mila muxu, batez be Uxue eta Elaiaren partetik.



OÑATI
Xabier Estomba Aranguren
Uztailaren 26an, 42 urte. Kaixo, aitatxo! Zorionak eta muxu handi bat Olatz, Miguel Anjel, Arantxa, Joxean, Alazne eta Maria Anjeles eta ama Pilar eta bereziki Aitana txikiak. Ondo pasatu eguna, aitatxo.



ARETXABALETA
Irene Sandoval Antxia
Uztailaren 26an, 12 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu eguna. Belarri tirakada asko eduki eta muxu handi bat zuretzat, zure familiaren partetik.



BERGARA
Irazu Bolaños Valpuesta
Uztailaren 25ean, 24 urte. Zorionak, printzesa, etxekoan partetik. Segi zaren moduko alai eta zoriontsua izaten. Musu handi bat.



ARETXABALETA
Anita Aretxaga
Uztailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, amama! Beti bezain gazte ete umoretsu jarrai dezazula. Musu handi-handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Leire Odriozola Zubia
Uztailaren 24an, 5 urte. Zorionak, Leire, etxeko danon partetik. Muxu potolo bat zuretzat.



BERGARA
Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 3 urte. Zorionak Jurgi! Txapeldun! Ondo pasatu eguna familia guztiaren eta, batez be Ane, Elene, Erik eta Noraren partetik, eta segi beti bezain alai! Patxo handi bat.



ARRASATE
Antonio Manuel Guedes Pereira
Uztailaren 23an, 32 urte. Zorionak, amore! Disfrutatu zure eguna. Patxo. Saray eta Tamara.



BERGARA
Shere Moreno
Uztailaren 23an, 30 urte. Zorionak eta urte askotarako, amatxo! Egun ona pasatu eta opari asko jaso! Oso maitxe zaitxugu! Etxekuak, Uxue eta bereziki Kenar.



BERGARA
Izar Muñoz Otaño
Uztailaren 23an, 9 urte. Zorionak, Izar! Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat familia guztiaren eta, bereziki, zure lehengusu Unaxen partetik.




ARAMAIO
Maria eta Libe Ayastuy Martinez
Libek 5 urte uztailaren 1ean eta Mariak 8, uztailaren 23an. Zorionak, bikote! Patxo potolo bana eta ondo pasatu oporretan. Amama eta aitaixaien partetik.



ARRASATE
Isabel Guerra
Uztailaren 23an, 43 urte. Zorionak, amatxo! Ondo pasatu eguna zure familiarekin, opari asko eduki eta belarri tirakada asko eduki.



BERGARA
Eki Muxika Iñurrategi
Uztailaren 23an, 5 urte. Zorionak gure supergizontxoari! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean eta etxeko eta laguntxoan partetik mila patxo eta besarkada potolo bat.



ARRASATE
Unax Beitia Jara
Uztailaren 22an, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Esku bateko hatz guztiak zabaldu ditzakezu! Patxo potoloa eta besarkada handia familiaren eta batez ere Malenen partetik.



OÑATI
Marta Zubigirre Ugarte
Uztailaren 22an, 5 urte. Jaso ezazu zure familiareen izenean zorion agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu, bihotzez. Muxu handi bat denon partetik.



ARETXABALETA
Julen Sandoval Antxia
Uztailaren 22an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta opari asko eduki. Muxu handi bat zure familiaren partetik.



ARETXABALETA
Mikel Zurutuza Amozarrain
Uztailaren 22an, 9 urte. Zorionak, maittia. Ondo pasatu eta jarraitu horrela. Etxeko danon partetik, bereziki, Antton, Manex, Maddi eta Eñauten partetik. Muxuak.



OÑATI
Ane Arrizabalaga Txintxurreta
Uztailaren 21ean, 2 urte. Zorionak, politto! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko danon partetik.




BERGARA
Maren Lezeta Iturralde
Uztailaren 21ean, 7 urte. Zorionak, printzesa xarrianta! Mila zorion hainbeste maite zaitugun Aiur, Noa, aitatxo eta amatxoren partetik. Ondo pasatu!




BERGARA
Sara Unamuno Andueza
Uztailaren 20an, 2 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Musu handi bat etxeko guztion eta, bereziki, Mikelen partetik.



BERGARA
Julen Irizar Galarraga
Uztailaren 19an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Urtebetetze egun ederra pasa deizula. Segi orain arte bezain jator eta alai izaten. Patxo handi bat etxeko danon partetik.



OÑATI
Markel Altube Ayesta
Uztailaren 19an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunian familia guztiaren partetik. Musu handi bat.



ARAMAIO
Oihan Azkarate Arriolabengoa
Uztailaren 18an, 8 urte. Zorionak, laztana! Amandrea, amama, aitaita, amatxo, aitatxo eta Hegoi. Ondo pasatu eguna!



OÑATI
Miren Aberasturi Galdos
Uztailaren 18an, 4 urte. Zorionak, politta! Muxu pila bat etxeko danon partetik. Mua!



ARETXABALETA
Ixone Zubiria Zubeldia
Uztailaren 18an, 5 urte. Zorionak, pixpirrintxo! Ondo pasatu zure bosgarren urtebetetzien eta urte ona izan. Segi horrela! Patxo pilua etxekoan partetik!




ARRASATE
Aitor Etxebarria
Uztailaren 18an, 33 urte. Zorionak, aitatxo! Muxu handi bat etxekoan partetik.



ANTZUOLA
Aiora Legorburu Rodriguez
Uztailaren 18an, 8 urte. Zorionak, Aiora! Amaiur eta etxeko danon partetik!



ARRASATE
Ane Rincon Madinabeitia
Uztailaren 18an, 7 urte. Zorionak, pottola! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Udane Ruiz de Apodaka Orueta
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako, familia danaren partetik. Batez ere amatxo eta aitatzoren aldetik, patxo pilo bat.



ARETXABALETA
Laia Arriola Serrato
Uztailaren 17an, 11 urte. Zorionak, Kuxku! Zelako nagusixa jada: 11 urte! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo erraldoi bat etxekuen partetik.



OÑATI
Oinatz Agirregabiria Agirre
Uztailaren 16an, 2 urte. Zorionak, Oinatz! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu bat etxeko danon partetik.



ARETXABALETA
Oier Portalo Gonzalez
Uztailaren 15ean, 4 urte. Zure goxotasuna, zure irrifarra, bihotzez emandako maitasun bakarra... Zorionak, etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu! Patxo erraldoia zuretzat.



BERGARA
Ane Alberdi eta Lorea Arenaza
Anek uztailaren 11n eta Loreak uztailaren 14an. Zorionak, neskak! Patxo handi bat. Jarraitu hain guapak.



ESKORIATZA
Jon Regaño
Uztailaren 14an, urtebetetzea. 2 zenbakia atzean utzita sartu zara 3koen klubera. Oso ondo pasatu zure egunian. Zorionak Oihana, Liher eta Itziarren partetik.



ARETXABALETA
Eider Arias Axpe
Uztailaren 12an, 6 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo handi-handi bat etxeko danen eta, bereziki, Unai eta Ikerren partetik.



ARRASATE
Nerea Valladolid Arana
Uztailaren 12an, 27 urte. Zorionak, Nere! Segi indartsu eta alai! Behar zaitugu, zu zara egunero pozten gaituena! Muxu handi bat etxeko danon partetik!



ARRASATE
Erik Iribekanos Lizarralde
Uztailaren 12an, 7 urte. Mila kilo zorion, Erik. Asko maite zitugu. Zure Aramaixoko lehengusinak, Maria eta Leire.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituzte *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Maddi Garcia del Fresno

Arrasate. 3,410 Kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Arantzazu eta Gorka. Argazkian, Maddi jaioberria aitaita-amamekin.



Malen Caro Arriaran

Oñati. 3,220 Kilo. Uztailaren 14a. Gurasoak: Zior-tza eta Santi. Argazkian, Malen jaioberria aitaren besoetan.



Oier Urzelai Sierra

Oñati. 3,010 Kilo. Uztailaren 14a. Gurasoak: Mar-ga eta Aitor. Argazkian, Oier jaioberria amamaren besoetan.



Nahia Aldasoro Galdos

Oñati. 3,610 Kilo. Uztailaren 13a. Gurasoak: Lier-ni eta Iñigo. Argazkian, Nahia jaioberria sehaskan ederki asko lo.



Eritz Arriola Oregi

Arrasate. 3,500 Kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Amaia eta Iban. Argazkian, Eritz aitxejaun eta amandriarekin.



Oier Urkizu Pildain

Arrasate. 4,130 Kilo. Uztailaren 12a. Gurasoak: Zorione eta Aritz. Argazkian, Oier jaioberria gurasoekin.



Shelsy Lopez Pilligua

Arrasate. 3,620 Kilo. Uztailaren 18a. Gurasoak: Carolina eta Jeus. Argazkian, Shelsy jaioberria amaren besoetan.



Iradi Aramendi Altuna

Eskoriatza. 3,140 Kilo. Uztailaren 18a. Gurasoak: Itxaso eta Ekaitz. Argazkian, Iradi jaioberria aitaren besoetan.



Jare Cabello Gonzalez

Arrasate. 3,020 Kilo. Uztailaren 18a. Gurasoak: Leire eta Paco. Argazkian, Jare jaioberria izeba Nerearekin.



Izaro Arzuaga Corcostegui

Oñati. 4,600 Kilo. Uztailaren 17a. Gurasoak: Deia-ne eta Gaizka. Argazkian, Izaro, amama Mertxe, Unax eta Kermanekin.



Arianne Argibay Salgado

Eskoriatza. 3,400 Kilo. Uztailaren 17a. Gurasoak: Alexandra eta Lander. Argazkian, Arianne jaioberria aitaren besoetan.



Amaia Diaz Lazkano

Eskoriatza. Kilo. Uztailaren 17a. Gurasoak: Olatz eta Iban. Argazkian, Amaia jaioberria sehaskan.

AI, ENE!

Behingoagatik, onaden asmakizun bat

Komuna eta konketa, dena batera. Nola ez zaio inori aurretik bururatu? Honekin, ez dago aitzakiarik eskuak zikin izateko. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Kataluniar nazkagarriak... Ez dute ezertxo ere merezi".

JUAN CARLOS GAFO | DIPLOMATIKOA

'Marca España'-ko goi mandatoriaren albokoa da (edo zen) Gafo, eta ez zitzaion batere gustatu Bartzelonan, Munduko Igeriketa Txapelketen inaugurazioan Espainiako hereserrkiari txistu egin izana. Hau behintzat, dagoeneko kendu dute kargutik. www.twitter.com

EGURALDIA



Max. 34°

Min. 17°

Uda beteko giroarekin hasiko dugu astea eta arratsaldetan ekaitzerako joerarekin. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-07-22

HAMARREKOA

Xabier Saldias John Denver edo Queen bezalako artisten doinuak Euskal Herrian ezagun egin zituen azpeitiarra hemeretzi urterekin hasi zen Eganekin; egun, 62rekin, berdinean dihardu. | TXOMIN MADINA

"Gurekin ezagutu diren bikoteekin Belodromoa beteko genuke"

1. Oporrak hartuko dituzte askok egunotan; zu zeu, zenbat denbora udan oporrik hartu gabe?

Sekula ere ez ditut hartu. Hementzen urterekin hasi nintzen musikan, eta gure lana udan izan da gehiena. Ohitu naiz bertan gelditzen. Ez zait gustatzen kanpora joatea, nahiago dut egunerokoan ahalik eta gusturen ibiltzea.

2. Geratuko al da euskaldunik Egan ezagutuko ez duenik?

Baten bat akaso, oraingo gazteak... Baina gure garaikoak inor ere ez: alde batetik pozgarria da, esan nahi du noizbait behintzat zurekin ondo pasatu dutela.

3. Garai baten 200 kontzertu ematen zenituzten urtean. Nola egin ziplo ez erortzeko?

Gazteak ginen-eta! 40 egun jarraian jota gaude, zein egunetan bizi ginen arrastorik gabe. Orain pare bat eginez gero, neka-neka egin da amaitzen dut.

4. Egani esker ezagutu diren bikoteekin euren ezkontzetara gonbidatuko bazintuzte, zenbatetan egongo zinen honezkerok?

Makina baten bai! Esan ohi dut Belodromoan erromeria bat egin beharko genukeela gurekin ezagutu diren bikoteekin, eta uste dut bete egingo genukeela.

5. Erromeria ostekoak berdinak dira orain eta duela 30 urte?

Ez! Lehen ereindako uzta jasotzeko geratzen ginen; orain, etxera joateko desiatzen egoten gara.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Espainolendako zentzua"

"Gure independentziaren alde egindako lanari fruituak ateratzea gustatuko liztaidake. Makilarekin, espainolei zentzu pixka bat emango nieke, Blairrek- eta erakutsi duten inteligentzia; konturatu daitezela batzuek disgustora daudela eurekin eta nahi dutena izan gura dutela".

6. Nazioarteko doinu asko euskal letrarekin egin zenituzten ezagun. Nondik hasi letrak moldatzen?

Ez zegoen denborarik mamitzeko, jendeari bat-batean heldu behar zitzaion. Hala, kankak fonetikoki hartzen nituen: Queenen *Show must go on*, esaterako, *Zu maixu on* bihurtu nuen.

7. Bota beldur barik: ezagutu dituzun denetan, zein da gusturen aritu zaren herria?

Mutrikura edo Urrietara oso gustura goaz. Erromeriak gainbeheran daudela diotenak herri horietara etorriko balira ez lukete gauza hori esango. Loioan, Amurrion, Lazkaon... ere gustura gabiltza.

8. Eta jo duzun egoera arraroena?

Gurdi baten gainean jota gaude, ukiulu baten sabaian, argi gutxirekin... Orain, ikuskizunari garrantzia gehiago ematen zaio errepertorioari baino eta guk ere moldatu beharra izan dugu.

9. Alaba ere zeurekin dabil aspaldion. Ondo ezberdintzen dituzu aita eta nagusi paperak?

Gustura dagoela dio behintzat... Lehen baino erretxinago jartzen naiz gauzak ez direnean gura bezala irtetzen, baina gaurko gazteak ez daude egurrera ohituta; malguago ibili behar izaten dut.

10. Queen bereziki gustuko ei duzu.

Munstroak ziren. Diskoan gustatzen zaizkit, ezin dira gainditu; zuzenean ez ziren hainbesterako.

BIHARAMUNA

IXIDOR SOLUPE



Irrazionalak, nortzuk?

Beti esan ohi da, giza-kiak zentzudunak gabela eta abereak aldiz irrazionalak. Hedabideetan ikusten ditugun irudiek ordea zalantza jartzen dute ustezko egi hori. Urrutira joan gabe, Euskal Herrian ere hainbat basakeri eta giza eskubideen bortxaketa gertatu eta gertatzen dira, baita jai giroan gaudenean ere..

Aurtengo San Ferminetik hiru irudi nabarmendu nahi ditut. Lehena, bezperako txupinazioan ikusi duguna: gizonetakoak hirugarrenen bizkar gainera igota dauden emakumeak larrugorritzen, ukituka eta zirri egiten. Benetan lotsagarria, basatia. Bigarren irudia: entzierroan gizonetako bat zezenaren bizkar gainari helduta lasterka; axo-lagabea eta arriskutsua. Zezenak ordea bultzada soil batez aldentzen du gizonetako, adarkatu eta zapaldu gabe. Hirugarren irudia 7. entzierroan korrikalarietako zezen plazaren sarreran gertatutako tapoia: giza hutsegite bategatik korrikalariak elkar bultzaka eta zezenak eta joaldunak buruak goraka dituztela korrikalarietako inolako kalterik egin gabe. Zeintzuk gara beraz zentzudunak eta zeintzuk irrazionalak?

Norberaren askatasuna besteari hastean amaitzen da.

R.P.S. Nº 149/10 L.L.G.

Gure betaurreko guztiak azken bildumakoak dira

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan